

ARRASATEKO HIRIGINTZA ANTOLAKUNTZAREN PLAN
OROKORRAREN AZTERKETARAKO 2011KO AZTERLAN
SOZIOEKONOMIKOA

Diagnosi sozio-ekonomiko txostena

Investigación

Evaluación

Consultoría

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	4
------------------	---

I.- DIAGNOSIRAKO ELEMENTUAK6

1.- POPULAZIO EREMUA 7

1.1.- Lurralde enkoadraketa eta testuinguru ezarpena	7
1.2.- Populazioaren zifra eta garapena	7
1.3.- Demografiaren egitura	10
1.4.- Populazioaren mugimendu naturala eta migrazioak	13

2.- ETXEBIZITZAK 20

2.1.- Etxebizitzen ezaugarriak.....	20
2.2.- Etxebizitzen eraikuntza eta salmenta	24
2.3.- Etxebizitza beharra eta eskaria.....	28

3.- GARAPEN EKONOMIKOA 36

3.1.- Enpresa-sarea eta jarduera ekonomikoaren garapena	36
3.2.- Sektore egitura	39

4.- LA- MERKATUA 48

4.1.- Populazioa jardueraren arabera	48
4.2.- Kontratazio mailak.....	53

5.- HEZKUNTZA, KULTURA ETA EUSKARA 56

5.1.- Hezkuntza eskaintza eta eskaria.....	56
5.2.- Kultura	63
5.3.- Euskara.....	65
5.4.- Kirola.....	69

AURKIBIDEA

6. GIZARTE-AZTERKETA ETA BIZI-KALITATEA 77

6.1.- Gizarte-egoerak eta arazoak.....77

6.2.- Zerbitzu hornidura eta gizarte-osasun ekipamenduak83

7. LURZORUA..... 91

7.1.- Lurzoruaren ezaugarriak 91

7.2.- Berdeguneak eta babestutako eremuak 95

7.3.- Potentzialki kutsatutako azalera 97

7.4.- Industria hondakinak 98

8. MUGIKORTASUNA 100

8.1.- Udalerrira irisgarritasuna 100

8.2.- Automobil-parkea..... 101

8.3.- Aparkalekuak..... 103

8.4.- Hiri-garraioa 103

8.5.- Txirrinda-bide sarea edo bidegorriak..... 103

8.6.- Populazioaren mugikortasuna 104

II.- ETORKIZUNeko AGERTOKIA 109

1. METODOLOGIA 110

2. ARRASATEN 2020RAKO AURRIKUSITAKO DEMOGRAFIAREN GARAPENA ETA
EGITURA ADIERAZLEAK 113

2.1. Arrasaten 2020rako aurrikusitako demografiaren garapena 113

2.2. Egitura adierazleak..... 118

III.- ONDORIOAK 124

AURKEZPENA

Ondorengo txosten honek Arrasateko garapen eremu nagusiak aztertzen ditu, garapen ikuspuntu batetik: populazioa, etxebizitza, garapen ekonomikoa, kultura, kirolak eta euskara, gizarte ongizatea eta bizi kalitatea, lurzorua eta mugikortasuna. Azterketa honen emaitza gisa, tokiko eskuhartze eremu nagusien etorkizuneko agertokiak ezartzen dira.

Txostenak Hirigintza Antolakuntzaren Plan Orokorraren azterketa bultzatzen du, datorren urteetan gizarte-hirigintza eremuan eskuhartze norabidea ezarriko baitu; horrela, egunero, Arrasate eta bere bizilagunen aurrerapen ekonomikoa eta garapen solidario eta integratzailea bultzatzea dezan. Horretarako udalerrialdituen ahalbide, aukera eta baliabideak estrategikoagoak diren helburuekin lotzea lortu beharko litzateke, Udaletxea buru izanik, agente sozioekonomiko publiko eta pribatuen parte hartzearekin.

Txostena hiru atal nagusietan egituratu da:

1go DIAGNOSIRAKO ELEMENTUAK, atal honetan bereizitako 8 eremuri ekiten dio, garapen ikuspuntutik eta lurralde konparaketatik:

- Demografia eta populazio garapena
- Etxebizitza
- Garapen ekonomikoa
- Lan-merkatua
- Hezkuntza, Kultura eta Euskara
- Gizarte-azterketa eta bizi-ongizatea
- Lurzorua
- Mugikortasuna

Eremu horietako bakoitza fitxa sintetiko batekin osatuko da, bertan ezaugarri esanguratsuenen balioztapen nagusiak jasoko direlarik.

2. ETORKIZUNeko AGERTOKIAK Arrasateko proiektzio demografikoaren analisiari ekiten dio, 2010-2020 denboraldiarena hain zuzen. Proiektzio honek, Eustatek bere proiektzio demografikorako planteatu dituen hipotesien arabera, datozen urteetan Arrasatek izango duen garapena estimatzea ahalbidetu du.

2020rako estimatzen den agertoki demografikotik abiatuz, eta datozen urteetan EAEgorako egiten diren aurrikuspenak direla eta, aipatutako eremuetan Arrasatek izan dezakeen egoeraren azterketatxo bat egin da, egungo eta etorkizuneko egoerak konparatzeko asmoz. Azterketa honen garapenerako oinarria, adierazle multzo bat sortzea izan da, bertan eremu bakoitzeko erreferentzia nagusienak jasotzen baitira.

3. ONDORIOAK, azken atal honetan, laburbilduz, eta erregistratzen den joera oinarri izanda, egindako diagnosi azterketatik ateratako ondorio nagusienak jasotzen dira.

I.- DIAGNOSI ELEMENTUAK

1. POPULAZIO EREMUA

1.1. LURRALDE ENKOADRAKETA ETA TESTUINGURU EZARPENA

Geografikoki, Debagoienak 348,4 km² ko zabalera du eta, Arrasatez gain, Antzuola, Aretxabaleta, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñati udalerriek osatzen dute. Horretaz gain, bere barnean, eskualdeak hiru populazio gune ditu berezko eremuetan eragina dituztenak.

1. Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta, neurri txikiago batean, Leintz – Gatzagarengan buru egiten duena.
2. Bergara, Antzuola eta, neurri txikiago batean Elgetarengan eragiten duena.
3. Oñati, eskualdetik zertxobait aldentuta aurkitzen dena, baina Goierriarekin lotura izan dezakeena.

Populazioaren arabera, Arrasate, populazio trinkoa duen udalerri gisa kontutan hartu daiteke, batzbesteko dentsitatea km²ko 715 biztanle dituelarik – Gipuzkoako batzbestekoaren gaineratik, km²ko 367 biztanle-.


Funtzionalki Gasteizekin lotuta dagoen udalerria da eta lurraldearen arabera Donostiarekin.

1.2. Populazioaren zifra eta garapena

Arrasate, eskualde-buru, Debagoienako populazio masa handien duen udalerritzat dugu. Zehazki, **eskualdeko populazioaren %36** inguru Arrasaten bizi da, **biztanleatz ari bagara 22.011** pertsona lirateke 2010. Urtean, eta grafikoaren arabera hauxe da banaketa:

- Populazioaren heren bat Alde Zaharrean bizi da -7.200 biztanle- gutxi gorabehera.
- Populazioaren laurden bat inguru Uribarri eta Musakolan bizi da, 5.400 inguru.
- %20 baino gutxiago San Andres eta beste auzoetan bizi da –gainontzeko 4.000 bizilagunak-.


Arrasateko biztanleen banaketa auzoka



Iturria: INE; Revisión del Padrón Municipal 2010

Hirigunetik urrun aurkitzen diren 5 auzoak eta biztanle gutxien dituztenak:


- Bedoña. (102 biz.)
- Garagartza. (218 biz.)
- Gesalibar (Santa Águeda) (713 biz.)
- Meatzerreka. (60 biz.)
- Udala. (45 biz.)



Eskualdeko, orokorrean, eta 2010eko demografía azaltzeko asmoz, 61.682 biztanle horiek kontutan izanda, Arrasate ondoren Bergara eta Oñati dira udalerrri esanguratsuenak; Bergara, bigarren udalerrria izanda 14.637 biztanle ditu – eskualdeko %23,7- eta Oñati 11.000 biztanlerekin -%17,7-.

Debagoienako populazio banaketa 2010

DEBAGOIENAKO POPULAZIOA 2010	c.a.	%v.
1. rrasate/Mondragón	22.011	%35,6
2. ergara	14.637	%23,7
3. ñati	10.957	%17,7
4. retxabaleta	6.700	%10,8
5. skoriatza	4.055	%6,6
6. ntzuola	2.161	%3,5
7. lgeta	1.079	%1,7
8. eintz-Gatzaga	262	%0,4
GUZTIRA	61.682	%100,0




Iturria: INE; Revisión del Padrón Municipal 2010

Hala ere, 2010. Urtean protagonismoa izan arren, garapenaren ondorioz, populazioa ez da hain positiboa: Arrasatek azken hamalau urteetan populazioaren zati esanguratsu bat galdu du; horrela, 1996. Urtean zituen 24.751 biztanleetatik, %10eko beherakada bat izan du, gaur egungo 22.011 biztanle izatera iritxi arte.

Dena den, aipatzekoa da populazioaren zifra hori azken urteetan egonkortu egin dela.; beraz, **beherakada hori % -0,24ra gutxitu egin da 2009-2010 urteetan eta biztanleak 22.000tik gora mantentzen dira.**

Populazioaren garapena Arrasate, Bergara, Oñati 1996-2010




Iturria: Gobierno Vasco. Dpto. de Economía y Hacienda. Udalmap

Eskualde eremua kontutan hartuz, historikoki Bergararen populazioa beheraka Joan da, baina Arrasate baino mantsuago 1996an %4,4 eta azken lau urteetan %1,6.

Arrasateko garapen negatiboa alde batera utziz, eskualdeko hirugarren udalerraren joera, Oñati, azken urteetan nahiko positiboa da. Zehazki, 1996 urtea kontutan izanik, populazioa %4 hazi da eta azken 5 urteetan zehatz-mehatz %2.

Populazioaren azterketa alderagarria egiterakoan, esan beharra dago, Arrasatek populazio maila eta eskualde eremuko eragina Beasain, Tolosa eta Durangok duten adinakoa dela. Zehazki, udalerrri hauek, Arrasatek ez bezala, joera positibo egonkorra edo garapen positiboa adierazten dute.

Aipatzekoa da, 2007-2010 urteetan, Beasainek izan duen populazioaren hazkundera, %6 inguru. Durangok eta Tolosak aldiz, motelago hazi ziren %3 eta %1 hain zuzen ere.



Iturria: Gobierno Vasco. Dpto. de Economía y Hacienda. Udalmap

1.3. Demografiaren egitura

Arrasateko populazioaren egitura adina kontutan hartuz, Debagoiena, Gipuzkoa eta EAEkoaren antzekoa da. Hala ere, aipatzekoa da, **adin nagusiko taldearen pisuak, pisu errelatibo handiagoa duela** -%19,8 Gipuzkoako %18,4ren aurrean- talde gazteenaren berakada emanez -%15,3 Gipuzkoako %17,3ren aurrean-.


ADIN TARTEAK 2006						
	0 – 19 Urte	%h.	20 – 64 Urte	%h.	> 64 Urte	%h.
Arrasate	3.355	%15,3	14.182	%64,8	4.332	%19,8
Alto Deba	9.945	%16,3	39.393	%64,6	11.616	%19,1
Gipuzkoa	118.627	%17,3	441.481	%64,3	126.557	%18,4
Euskadi	351.349	%16,5	1.381.839	%64,9	396.151	%18,6

EUSTAT. Censos de Población y Viviendas 2006

Bestalde, Arrasateko populazio piramideak garatutako gizartearen egitura tipikoa agertzen du (hankaz gora jarritako piramideak, adin nagusien geruzek duten pisua dela eta). Bere egitura Gipuzkoaren duenaren oso antzekoa da, baina ñabardura desberdin batzuekin, **populazioaren zaharkitzea esanguratsuagoa da kasu honetan.**

Zehatz-mehatz esateko, 0 eta 14 urte bitarteko jerruz Arrasaten Gipuzkoakoa baino estuagoa da; horrela, Arrasaten gazteenek 2010. urtean %11,6 ziren bitartean, Gipuzkoan adin berekoak % 13,4a ziren. Mutilen artean desberdintasuna Gipuzkoan dagoena baino handiagoa da - %12,2 Gipuzkoako %14,8ren aurrean-


Arrasateko populazioaren piramideak 2010



Iturria: INE; Revisión del Padrón Municipal 2010

Honek adin nagusien geruzaren errepresentazio maila handitzen du, batez ere emakumezkoen kasuan; Arrasateko 65 urteko emakumeak %24 dira.


Populazio piramidea Gipuzkoa 2010



Iturria: INE; Revisión del Padrón Municipal 2010

Garapena kontutan hartzen badugu, zahartze indizea -65 urtetik gorako populazioaren %a eta gainzahartzea 75 urtetik gorako populazioaren %a- azken urteetan handituz Joan da 2010. Urtean %20,92 eta %10,4ra iritxiz. Gauzak horrela, Gipuzkoako batzbestekoaren gaindik aurkitzen dira zifra hauek.

Zahartze indizearen eta gainzahartzen indizearen garapena 2003-2009




Iturria: Udalmap

Zehazki garapena zahartze indizearekin lotuta 2003. Urtez geroztik, %15koa da eta gainzahartze zifra aldiz, %38 inguru hazi da.

Akenik, esan beharra dago, populazio piramidearen oinarria edo gazteenen jera -0tik 14 urteetara- Arrasaten Gipuzkoan baino errepresentazio txikiagoa dutela, haurtzaroan indize maila 2005 urtez geroztik hazten doa eten gabe –puntu portzental bat baino gehiago- 2010. Urtean %11,89 indizera iritxi zelarik.

Haurtzaro indizearen garapena 2003-2009 – 0tik 14ra urte bitarteko populazioa-



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren. Ekonomia eta Ogasun Saila. Udalmap

1.4. Populazioaren mugimendu naturala eta migrazioak


Udalerrri batek jasaten duen populazioaren aldakuntza –hazkundera eta murrizketa- bi faktoreen ondorio dira, lehena barneko ezaugarria duena, mugimendu naturala, eta bestea kanpoko ezaugarria duena, migrazio mugimenduak.

a) Mugimendu naturala

Populazioaren mugimendu naturala, udalerrriak izandako hazkunde begetatiboaren ondorioz izaten da (populazioa osatzen duten pertsonen kopuruaren aldaketa, jaiotzen eta heriotzen balantzearen ondorio gisa).

Arrasaten jaiotze tasa egonkor mantendu egin da azken 8 urteetan, mila biztanleko 7 eta 8 jaiotzekin. 2009. Urterako jaiotzak orotara 169 izan dira.

Jaiotze Tasa gordinaren eta heriotza Tasa gordinaren garapena (%) 2002-2009




Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ekonomia eta Ogasun Saila. Udalmap

Aztertutako guztien artean tasa hau da egokiena, probintzia mailan erregistratutako tasaren azpitik 3 puntu portzentualean kokatzen delarik (%10,14), eta beste udalerrri nahiz eskualde-buru direnak baino diferentzia esanguratsagoarekin, Oñati (% 11,62) edo Beasain (% 14,83) bezala.

Jaiotze tasa gordina

Arrasate eta erreferentziako eskualde-buru diren udalerriekin alderaketa. 2009 urtea




Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ekonomia eta Ogasun Saila. Udalmap

Heriotze tasa aldiz, hazten doa aldi guztian zehar jaiotze tasa baino balore handiagoetara iristen delarik, 1.000 biztanleko 8 eta 10 heriotza ematen direlarik.

Horrela, Arrasaten azken urteetan hazkunde begetatiboa zentzu negatiboan mantendu da – jaiotzak baino heriotza gehiago- eta 2008. Urtean Debagoainan esanguratsuak diren udalerriek baino maila apalagoan aurkitzen zen –% 1,4 inguru zentzu negatiboan-.


Hazkunde begetatibo Tasaren garapena (%o) 2002-2008



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ekonomia eta Ogasun Saila. Udalmap

Bergarak bestalde, 2005 urteaz geroztik hazkunde esanguratsua jasan du nahiz eta egun hazkunde begetatibo negatiboa duen. Oñatik, alderaketa eginez gero, jaiotze tasa altuena duen udalerrria izanik, 2008. Urtean hazkunde begetatibo positiboa mantentzea lortu zuen.

Hazkunde begetatibo tasen alderaketa Arrasate, Bergara, Oñati (%o). 2008 urtea




Iturria: Eusko jaurlaritza. Ekonomia eta Ogasun Saila. Udalmap

	Arrasate	Bergara	Oñati
2002	-0,56	1,39	-2,32
2003	-1,0	-1,87	0,19
2004	-0,57	-1,28	1,77
2005	-2,0	-3,43	0,37
2006	-0,9	-1,01	1,49
2007	-1,81	-1,01	0,74
2008	-1,36	-0,81	0,18

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren. Ekonomia eta Ogasun Saila. Udalmap

Bestalde, erreferentziako eskualdeko buru diren udalerriekin alderaketa azterketa bat eginez, Beasainen eta Durangoren hazkunde begetatiboa nabarmentzen dira, 4,36 eta 3,49 hain zuzen.

Hazkunde begetatiboaren tasen alderaketa Beasain, Tolosa, Durango (%). 2008 urtea



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren. Ekonomia eta Ogasun Saila. Udalmap


b) Migrazio mugimendua

Ondoren, Arrasaten eman den migrazio saldoa aztertuko da, bai barnekoa bai kanpoko.

2009. urtean udalerrian izandako **Kanpoko¹ migrazio saldoa**, 2008-2009 urteetan murriztu arren, **eskualdean aurkitzen den handiena da, %5 inguruan kokatzen delarik**. Garapenaren arabera, eta erreferentzia gisa 2003-2009 urte aldia kontutan hartuta, izandako garapen positiboa nabarmena da **-%1,17 saldo negatibotik 2008an lortu zuen etengabeko hazkunderaino%7,4**

¹Kanpo Inmigrazio eta emigrazioaren arteko desberdintasuna, hau da, inmigratzen duten pertsonen kopurua, EAE kanpotik etorritakoak eta emigratzen dutenak, hau da, EAEtik kanpora doaztenak.


Kanpo eta barneko migrazio saldoaren garapena (%o)



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ekonomia eta Ogasun Saila. Udalmap

Barneko² migrazio saldoa, aitzitik, garapena dela eta, aztertutako azken bi urteetan hazkunde negatibo bat izan du. Saldo hau 2003an %4,03ko balore negatibotik 2007ko %9,11 balore negatibora pasa zen. Urte horretatik aurrera, balore negatiboetan mantentzen den arren, barneko migrazio saldoa asko hobetuko da 2009ko %-3,31ra iritxi arte. Populazio galera honetan eragin dezaketen arrazoiak ondorengoak izan daitezke: beste Erkidegoetatik etorritako jendea berriz jatorriko udalerrietara bueltatzea; bigarren etxebizitzaren erosketa, Erroldan baja bezala agertzen direnak eta behin behineko bajak ematen dituztenak azterketak egiterakoan; barreiatutako guneez duten populazio indize baxua, eta nekazal-inguru hauek populazioa galtzeko duten joerarekin, eta azkenik, errepideen hobekuntzak Arrasatera lanera etortzeko ahalbidetzen dute baina ez bertan bizitzen gelditzeko.

Barneko eta kanpoko migrazioak nahiz migrazio orokorren saldoen alderaketa (%). 2009 urtea



² Barneko inmigrazio eta emigrazioaren arteko desberdintasuna, EAetik Arrasatera inmigratzen dutenak eta Arrasatetik EAEko veste udalerrietara emigratzen dutenak dira.

Iturria: Eustat, Migrazio saldoak lurraldeka

Horrela, Debagoienako udalerrri nagusietan, eta bereziki Arrasaten, saldo negatiboak barneko migrazioari dagozkienak (EAEko beste udalerrietara joaten diren Arrasatearrak), kanpoko migrazioaren saldo positiboekin konpentsaturik gelditzen dira (EAetik kanpo datozen pertsonak). **Migrazio saldo orokorra** (barne eta kanpoko migrazio saldoen arteko desberdintasuna) **Arrasaten 2009an %1,5tekoa da.**

Migrazio saldo orokorrak lurralde eta urteen arabera

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Arrasate	-7,14	-5,20	-7,39	-7,83	-3,09	-4,02	6,78	1,50
Bergara	-1,79	-7,64	2,95	7,53	3,16	-1,08	0,34	-0,34
Oñati	0,46	-3,16	-2,70	4,85	4,37	6,79	9,25	4,50

Iturria: Eustat, Migrazio saldoak lurraldeka

Horrela, EAetik kanpo datorren talde honetatik nabarmentzen dira batez ere atzerritarrak, 2010. Urtean jada populazio osoaren % 4,47a ziren eta (2003. Urtean %1,18 ziren soilik). Inmigrante taldea hazkunde begetatibo negatiboa geldiarazteko funtsa izan da Arrasaten.

LABURBILTZEKO FITXA 1: POPULAZIO EREMUA

1.1. LURRALDE ENKOADRAKETA ETA TESTUINGURU

EZARPENA

- Arrasateko populazio dentsitateak Gipuzkoako batzbestekoa ia bikoizten du. *715 biztanle km² vs. 367 biztanle km²*.
- Gasteizekin funtzionalki lotuta eta lurraldearen arabera Donostiarekin
-



1.2. ZIFREN BALIOZTAPENA ETA POPULAZIOAREN GARAPENA

- 2010. Urtean, 22.011 biztanlerekin, Arrasatek eskualdeko populazioaren %36 biltzen du.
- 1996 urtetik aurrera Arrasatek bere populazioaren %10 galtzen du.
- Hala ere, 2009-2010 urteen bitartean populazioaren galera ekiditzen du, batez ere inmigrazioaren ondorioz (%-0,24).



Errealitate hauek alderatuz gero emaitzak hauek lirateke:

- Eskualdean Bergarak, Arrasatek baino askoz ere mantsiago galtzen ari du populazioa, eta Oñati azken 5 urteetan %2 hazi da.
- Erreferentziako eskualdeko udalerrri nagusiak –Beasain, Durango eta Tolosa- poliki doazen arren, azken hiru urteetan zehar %6, %3 eta %1 hazi dira hain zuzen.
- 1996-2010 bitartean Beasain %18 baino gehiagon hazi zen eta Durango %12 baino zertxobait gehiago.

1.3. DEMOGRAFIAREN EGITURAREN BALIOZTAPENA

- Arrasatek adinekoen taldearen pisu errelatibo handiena du bai eskualdean, bai EAEn.
- Populazioaren zahartze nabarmena (populazioaren piramidearen oinarria eltzetsuaren forma duena, Gipuzkoako piramidea baino mehiarragoa).
- Zahartze eta gainzahartze indizeen hazkundera.
- Haurtzaroaren indizea eten gabe gora.



1.4. POPULAZIOAREN MUGIMENDU NATURALA ETA MIGRAZIOAK

1.4.1. POPULAZIOAREN MUGIMENDU NATURALA

- Jaiotze tasa egonkor mantentzen da (2008an‰8,6).
- Heriotza tasa hazten doa (2008an‰10,0).
- Begetazio hazkunde negatiboa (2008an‰-1,36).
- Arrasateko hazkunde begetatibo negatiboa, urte beran agerian geratzen da, erreferentziako eskualdeetako udalerriekin alderatzerakoan, beraien tasak Arrasatenak baino mantsiago hazten edo murrizten dira eta.



1.4.2. POPULAZIOAREN MIGRAZIO MUGIMENDUA


- Arrasatek eskualdeko kanpo migrazio saldo handiena dauka ‰4,8, eta jasotzen duen garapen positiboa esanguratsua da.
- Barneko migrazio saldoa hobetzen doan arren, negatiboa da (‰-3,31).
- Migrazio orokorraren saldoa konpentsatua gelditzen da (‰1,5), Oñatiren balore onetara iristen ez den arren (‰4,5).



2. ETXEBIZITZAK

2.1.- Etxebizitzaren ezaugarriak

Arrasateko etxebizitzak **2009. Urtean 9.986 etxebizitza ziren**, 2006-2009 urte bitartean hazkunde jarraitua izan da %10 iritxi arte, urtero 300 etxebizitza inguru batzbesteko hazi delarik.



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Hala ere, aurreko atalean ikusi den bezala, 2006 eta 2009. Urteen artean populazioa %2,6 murriztu zen, hori dela eta, etxebizitzaren eskaintzaren ondorioa, beraien neurria txikitzea izan da eta etxebizitza huts gehiago izatea.

Debagoiena eskualdean, **Arrasatek eskualdeko etxebizitzaren heren bat baino gehiago biltzen du**. Horrela, Arrasatek, Bergararekin batera Debagoienako etxebizitzaren %60a dute.

Debagoiena eskualdeko etxebizitzaren banaketa 2009

Debagoiena eskualdeko udalerrak	Etxebizitza kopurua	% v.
ARRASATE	9.986	35,20%
BERGARA	6.836	24,10%
OÑATI	4.982	17,60%
ARETXABALETA	2.894	10,20%
ESKORIATZA	1.853	6,50%
ANTZUOLA	1.093	3,90%
ELGETA	597	2,10%
LEINTZ-GATZAGA	136	0,50%
GUZTIRA	28.377	100,00%

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Urteko garapenari dagokionez, eta **2008-2009 urteak erreferentzia gisa izanik, Arrasatek duen hazkundera nabarmentzen da, %5,2ko hazkundera**, Bergararen hazkunde motelaren aurrean (%1 inguru).

Etxebizitzaren garapena 2006-2009 Arrasate-Bergara

Epea	% Arrasateko garapena	% Bergarako garapena
2006-2007	+%1,5	%1,8
2007-2008	+%3,2	%0,6
2008-2009	+%5,2	%1,1

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Horrela, bizitegi-lurzoruan etxebizitza dentsitatea Arrasaten gaur egun, 57,08etxeb/bizt da. Hala ere, kuantitatiboki hazi den arren, etxebizitza dentsitatea Gipuzkoarekin alderatuz, zertxobait beherago agertzen da -58,43- eta Bergarak agertzen duenaren oso behean -86,17-..

Bizitegi-lurzoruan etxebizitza dentsitatea 2010 Arrasate (Etxebizitza/Biz

BIZITEGI-LURZORUAN ETXEBIZITZA DENTSITATEA	
GIPUZKOA	58,43
ARRASATE / MONDRAGÓN	57,08
BERGARA	86,17
OÑATI	58,16

Iturria: Udalmap (Eusko Jaurlaritz, Lurralde Antolakuntza eta Ingurugiro Saila. Udalplan)

Bestalde, etxebizitza hutsak etxebizitza guztiak baino erritmo handiagoan hazten ari dira, azken **4 urteetan bere pisua esanguratsuki hazi baita**, 2006 urtean %10,63 eta **2009. Urtean %13,27** (orotara 1.325 etxebizitza huts zeudelarik).


Etxebizitza hutsen garapena Arrasate 2006-2009

	Etxebizitza orotara	Etxebizitza hutask	Etxebizitza hutsen %
2006	9.065	964	10,63
2007	9.201	1.055	11,47
2008	9.491	1.186	12,50
2009	9.986	1.325	13,27

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Ratio hau Debagoienako beste udalerriekin alderatzen badugu, Arrasate, Aretxabaletarekin batera, Debagoiena guztiko etxebizitza huts gutxien dituztenak direla ikusten da. Eskoriatza, Oñati eta Bergarak 2,3 eta 4 puntu portzentualean gainditzen ditu Arrasate eta Antzuola, 9 puntu portzentual hain zuzen ere.


Debagoienako udalerrietako etxebizitza hutsen %. 2009 urtea



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Azkenik, aipatzekoa da, azken urteetan gizartean izan den joera kontutan hartuz, Arrasateri ere eragiten diola. Etxeen dimentsioaren batezbestekoa (etxebizitzako zenbat bizilagun) azken urteetan nabarmenki murriztu egin da, etxebizitzako 2,54 bizilagun daudelarik, gaur egungo familia mota desberdinen isla antzematen delarik (seme-alaba kopuru txikiagoa, aita edo amaz osatutako familiak...).


Etxebizitzako bizilagun kopuruaren batezbestekoaaren garapena 1996-2009



Populazioaren laurden bat pertsona bakarreko etxebizitzetan bizi da, heren bat inguru 2 laguneko etxebizitzetan, eta %20a baino gehiago 3 kide edo gehiagoko etxebizitzetan. 4 kide dituzten etxebizitzak %20a baino gutxiago dira eta 5 edo gehiago direnak %5 ez dira iristen.

Horrela, alderatzen jarrita, Arrasate Debagoiena eskualdeko udalerrri bakarra da joera hau argi eta garbi azaltzen duena, baina maila hori Beasain eta Tolosaren antzekoak dira (etxebizitza bakoitzeko 2,6 lagun).

Etxebizitzaren batzbesteko dimentsioa. Arrasate eta Debagoiena eskualdeko udalerrien arteko alderaketa




Arrasateko etxebizitzaren ezaugarriak argiago agertzeko asmoz, ondoren dimentsioa, antzintasuna eta erosotasunari buruzko erreferentziak emango dira.

Etxebizitzan bakoitzean biztanleen kopuruarekin bat etorriz, Arrasateko etxebizitzaren dimentsio batzbestekoa beste udalerriena baino zertxobait murriztagoa da (82,2m², Aretxabaletako 87,4 m², Bergarako 90,9 m², Antzuolako 94,3 m² eta Oñatiko 95,9 m²).

Esan beharra dago, 2006. Urtean etxebizitzaren antzintasunaren batzbestekoa 35,12 urte dira, Bergarako etxebizitzaren oso antzekoa, 35,35 urte.

Zentzu honetan, Arrasateko etxebizitzaren antzintasuna pixkanaka gora doa (etxebizitzaren biziberritze lan eskasa dela eta), pixkanaka 50 urtetik gorako etxebizitzak azken urteetan bere pisua handitzen doaz, 2001en izandako %6tik 2006ko %12 arte; maila hau berriz ere Bergararen antzekoa da -%11-, baina Gipuzkoak duen maila baino askoz ere txikiagoa %17,8.

50 urte baino gehiagoko etxebizitzaren %aren garapena Arrasate eta Bergaran




Iturria: Udalmap (Eusko Jaurlaritzaren, Lurralde antolakuntza eta Ingurugiro Saila. Udalplan)

Azkenik aipatzekoa da, Arrasateko etxebizitza ezaugarritzeko, etxebizitzaren³ erosotasunaz hitz egin behar dela. Adierazle honek Arrasateko etxebizitzak 2006. Urtean 75,94ean ezarriko luke, indize hau erosotasun "handitzat" jotzen delarik, Oñatikoaren eta bergarakoaren antzera - 76,02 eta 75,53-.

2.2.- Etxebizitzaren eraikuntza eta salmenta

Udalerriko eraikuntza eremuaren bizitasuna 2005-2009 urte bitartean haziz joan da, mila bizilaguneko 40 lizentzia inguruko mailan jarri arte..

Azken urteetan emandako etxebizitza berrirako emandako lizentziak (%biz)




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren, Etxebizitza eta Gizarte Gaiak Saila, Hasitako eta amaitutako etxebizitzaren estatistika (E.V.I.T). INE, Padrón municipal de habitantes)

Bestalde, **Arrasaten babestutako etxebizitzaren bizitasuna**, azken 5 urteetan bukatutako BOEn pisuaren garapenari, era positibo batean, lotzen zaio. Zehatz- mehatz, **2005-2009 urte**

* Erosotasun indizearen balorea instalakuntza edo zerbitzu bakoitzari, eta etxebizitza batean nahita ezkoak kontsideratzen diren ezaugarriak ezarritako puntuazioaren bidez lortzen da. Etxebizitzak erosotasun baxua duela kontutan hartzen da 50 puntu baino gutxiago lortzen duenean, erdi mailako erosotasun 50 eta 75 punturen artean dagoenean, eta 75 puntu baino gehiago dituztenean erosotasun handia.

bitartean BOE bukatuak %23,54 osatzen dute (gehienak 2008 eta 2009 urteen artean bukatuak).


Azken 5 urteetan bukatutako babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) (% biz)



Iturria: Eusko Jaurlaritz, Etxebizitza eta Gizarte Gaiak Saila, Hasitako eta amaitutako etxebizitzaren estatistika (E.V.I.T). INE, Padrón municipal de habitantes)

Alderatzen hasita, Arrasate Gipukoako batzbestekoaren gainetik kokatzen da lizentzia berrien kasuan, eta azken 5 urteetan 1.000 biztanleko bukatutako babes ofizialeko etxebizitza kopuruan. Hala ere, emandako lizentzia kontutan hartuz, Beasain (1000 biztanleko 69 lizentzia), Oñati (55 baino gehiago) edo Tolosa (48) Arrasateren zifrak gainditzen dituzte; babestutako etxebizitzaren zifrak, 1.000 biztanleko 24 etxebizitza babestu amaituekin, aztertutako gainontzeko udalerrien gainetik (EAEko rankingean 16. Postuan kokatuz).


Azken bost urteetan emandako etxe berrientzat lizentziak eta bukatutako babes ofizialeko etxebizitzaren (BOE) alderaketa udalerriko (% biz)




Iturria: Eusko Jaurlaritz, Etxebizitza eta Gizarte Gaiak Saila, Hasitako eta amaitutako etxebizitzaren estatistika (E.V.I.T). INE, Padrón municipal de habitantes)

Arrasate - Bergarako⁴ eremu funtzionalean 2010. Urtean lanetarako 57 lizentzia eman ziren eta 302 etxebizitza aurrakusten ziren, horietatik %95 etxebizitza berrientzako zirelarik.

Lanetarako lizentzia 2010



Aurrakusitako etxebizitzak 2010




Iturria: Eusko Jaurlaritza, Etxebizitza, lan publikoa eta garraio saila. Eraikuntza eta Etxebizitza Estatistika

Higiezin salerosketek etxebizitzaren eraikuntzan, bai babes ofizialekoak bai askeak direnak, dagoen bizitasuna agerian uzten dute.

Epe honetan, 1.223 higiezin salerosketa izan dira orotara Arrasaten, gehienak 2008 (guztia %26,7) eta 2009 (%32,2) urteetan zehar, urte bakoitzeko 300 salerosketa gaindituz.

Etxebizitzaren salerosketen garapena (askea eta babestua) 2006-2010.



Iturria: Encuestas de transacciones inmobiliarias, Ministerio de Vivienda


2009. urtetik aurrera higiezin krisiari lotuta murrizketa nabarmena ematen da, 2010. urtean salerosketak erdira jeitxi dira (2010ean 155 izan ziren eta 2009. urtean 394).

⁴ Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Oñati

Higiezin salerosketen %60 inguru eraikuntza berriko etxebizitzekin lotzen dira (2008-2009 urteetan 550 izan ziren, etxebizitzaren eraikuntzak gaina lortu zuenean Arrasaten).


Salerosketa horietatik gehienak etxebizitza askeekin lotzen dira, 10etik 8 hain zuzen ere; babestutako etxebizitzaren kasuan aldiz, %8,8 izan zen (guztira 108 etxebizitza).

Etxebizitzaren tipologia araberako salerosketa ezaugarriak: berria eta bigarren eskukoa. 2006-2010



Fuente: Encuestas de transacciones inmobiliarias, Ministerio de Vivienda


Etxebizitzaren tipologia araberako salerosketa ezaugarriak: askea eta babestua. 2006-2010



Fuente: Encuestas de transacciones inmobiliarias, Ministerio de Vivienda

Azkenik, esan beharra dago, higiezin krisiak ezartzen duen joera kontutan izanik, 2009. Urtetik aurrera etxebizitzaren prezioak zertxobait jeisten hasi zirela EAE mailan, eta batez ere Gipuzkoan.

**Gipuzkoan etxebizitza berrien m2 baliagarriko batzbesteko prezioa.
Garapena 2005-2010**



Iturria: Dpto. Vivienda, Obras Públicas y Transporte. Encuesta sobre Oferta Inmobiliaria

Horrela, Etxebizitza berrien batzbesteko prezioa m2 baliagarriko, etxebizitza librearen kasuan %8,4 murrizten da eta babes ofizialeko etxebizitza eta etxebizitza sozialen kasuan %4,6.

2.3.- Etxebizitza beharra eta eskaria


2.3.1.- Babestutako etxebizitzaren eskaria

Etxebizitza eskariaren kuantifikazioa Etxebiden erregistratutako etxebizitza eskaeren bidez egin daiteke; muga batzuk dituen estimazio honek, ondorengoekin lotuta daude besteak beste:

- Agertzen diren datuak etxebizitza publikoari lotuta daudenak dira eta merkatu askeko etxebizitzetara buruz ez da inolako erreferentziarik agertzen
- Izen -emate kopurua puztuta agertzen da bakarka izen eman duten bikoteen kasuagatik, etab.
- Etxebizitza berriari buruzko datuak dira eta etxebizitza berritzeari buruz ez du inolako aipamenik egiten.
- Diru-sarrera zehatza duen talde bati buruz ari da.
- Etab.

Kuantitatiboki, eta aipatutako mugak kontutan izanik, 2010. Urteko Etxebideko eskariak guztira **1.579tik 1.243 etxebizitzaren erosketari buruzkoak dira -%78,7-**.


Etxebiden etxebizitzaren eskaera guztira 2010



Iturria: Etxebide

Bestalde, **alokairu eskaria 1.015 izen-ematean kokatzen da, hau da, %64,3an**. Ondorengo grafikoan Etxebiden erregistratutako eskaera moten ezaugarriak agertuko dira, kontutan hartu beharko da izen-emate batek etxebizitza publiko baten erosketa edo alokairu erregimen desberdinak eskatu ditzazkeela.

Etxebiden etxebizitza guztien esakeren banaketa 2010



Iturria: Etxebide

Hori horrela izanik, eskari guztien ehunekorik handiena etxebizitzaren erosketara mugatzen da **-%71,3-** eta BOEn alokairura ere eskari guztien gehienak ere **-%55,1-**.

Bestalde, egindako eskaera guztietatik, Arrasateko udalerrian **erroldatutako en eskatzaileak 1.579etatik 950 dira 2010. Urtean (%60 inguru)**. Udalerrian erroldatutako en eskariekin lotzen diren ezaugarriak, erosketari dagozkienak **%80 dira** eta alokairuan **%62,5**.

Ondoren Etxebiden izen-emandako etxebizitza eskatzaileen ezaugarri nagusien laburpen bat aurkeztzen da, babestutako etxebizitzaren eskari potentziala ezaugarritzeko asmoz:

Izen emandako eskatzailearen profila

	Izen-emate kopurua	%
35 urte baino gutxiago	788	49,8
4 urte baino gehiago izen -emanda	285	18,0
Aita edo amaz osatutako familiak	59	3,7
Mugikortasun murrizta	17	1,1
Pertsona bakarra	1.290	81,5
Bikotea	141	8,9
3 edo 4 pertsona	115	7,3
Gizona	778	56,4
Emakumea	602	43,6
12.000-22.000 euro bitarteko diru-sarrera	532	33,6
22.000-28.000 euro bitarteko diru-sarrera	311	19,6
28.000-35.000 euro bitarteko diru-sarrera	234	14,8
Menos de 3.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrera	58	3,7

Iturria: Etxebide


- Eskatzaileen erdiak inguru 35 urte baino gutxiago du eta %56,4 gizonezkoa da.
- 10 izen-ematetik 8 bakarka egindako eskaerak dira. Hala ere, aurretik aipatu den bezala, praktikan ikusten da horietatik asko bikotea edo familiekin lotutako eskariak direla ikusten da, etxebizitza bakarra eskatzen dutenak.
- Izen-emandako eskatzaile gehienak, %53 inguruk, 12.000 eta 28.000 euro bitarteko diru-sarrerak ditu. Hala ere, Etxebidek emandako datuen arabera, Gipuzkoan izen-emandako %14 eskatzaile inguruk 12.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak ditu.

Etxebizitza ⁵erosteko garaian talde honek arazo handiak izago lituzke beharrezko kredituak jasotzeko

Garapena begiratzen bada, azken hiru urteetan atzerapen arin bat eman dela nabari da eskariaren ehunekoan biztanleko, 2007. Urtean %56,29 izan ziren eta 2009. Urtean %47,48. Portaera hau Bergaran ere ematen da .

⁵ Hausnartutakoak udalerrian etxebizitza babestuaren eskaria modu esanguratsu batean murriztea ekarriko du. Hala ere, arestian aipatu bezala, etxebizitza askearen eskaria gehitu beharko litzaioke eta azterketan sartuta ez dagoena.

Arrasate eta Bergaran etxebizitza eskaeren garapena (% biztanle) 2007 - 2009



Iturria: Udalmap

Azkenik, Arrasateko eremu funtzionalean ez dagoen arren, aipatzekoa da arrasatearrek Gasteizen egin ditzaketan etxebizitza eskariak. Zentzu honetan, esan beharra dago, Gasteizen, azken hiru urteetan zehar eskaeraren proportzioa murriztuz joan dela, Arrasatekoa baino askosaz ere nabariago gainera -2007. Urtean %68,02 eta 2009. Urtean %52,07- .

2.3.2.- Etxebizitza orokorraren beharrari buruzko gogoeta batzuk


Udalerrri⁶ mailan, etxebizitza orokorraren beharra edo eskaria kopuruaren informazioa ez dagoen arren, azken urteetan EAEan eta Gipuzkoan eman diren eskaera joeren erreferentzia batzuk hartzea kontutan hartu da.

2008ko EAEko etxebizitzaren behar eta eskariaren inkestaren arabera, Euskadiko familietako **%8,65etan gazteren bat dago lehenengoz etxebizitzaren beharra daukana** (eskaria 1,2 urterako edo 4rako). Behar hau, laugarren urtez jarraian hazten doa (2007an %10,1) eta gaur egun 2001. Urtez geroztik baxuena da. Gainera , gehienak (%68 inguru) epe luzerako eskariak dira (4 urte).

Etxebizitza aldatzeko beharrari dagokionez, , esan beharra dago inkestaren emaitzaren arabera, **2008. Urtean Euskadiko familietako %5ak inguruk dio egungo etxebizitza aldatzeko beharra dutela**. 2008ko indizeak 2003 urteaz geroztik hazten zihoan joerarekin bukatu du (%4,1), hiru puntu portzentual murriztu delarik 2007ko behar indizea kontutan hartzen badugu (%7,95).

⁶ Etxebizitza librearen behar eta eskariari buruzko informazio gabeziarekin lotuta

Lehenengo etxebizitzara iristeko beharraren eta etxebizitzaz aldatzeko beharraren indizeen garapena EAEan. 2001-2008



Iturria: Encuesta sobre Etxebizitzaren behar eta eskariaren inkesta EAE. 2008

Zifra hauek Gipuzkoa mailakoaren oso antzekoak dira, bertan, familien %8,56tan 4 urte baino lehenago etxebizitza baten beharra adierazten du eta %4,5ek etxebizitzaz aldatzeko beharra adierazten du. Lurralde historiko honetan ere, eskaeraren beherakada bat antzematen da beste urteekin alderatzen bada.

Datu hauek badirudi baieztatzen dutela, beraz, irisgarritasunaren beharraren murriztapen joera bat dagoela, demografiaren garapenaren ondorioz (gurasoen etxetik joateko adinean dauden gazte gutxiago joaten dira etxetik) baita azken urteetan jasandako lehen etxebizitza lortzeko prozesu intentsoaren ondorioz. Gaur egungo egoera ekonomiko latza eta bere ondorioak, merkatuan, alokairuan eta higiezinaren merkatuan bertan eragina izan dute, etxebizitzaren behar subjektiboaren adierazpenak gutxiagotuz.

Eskaera honen ezaugarrietara lehen hurbilketa eskaintzeko asmoz, ondoren interesgarriak izan daitezkeen informazioa aurkeztuko da, EAE mailan jasotako datuak erreferentzia izango direlarik, Etxebizitzaren beharra eta eskaria inkestatik ateratakoak direnak:

- Etxebizitza berria edo bigarren eskukoa ez da eskariaren benetako ezaugarria, beharra adierazten duten pertsona gehienek berdin zaiela adierazten duten bitartean (lehenengo etxebizitzara iristeko %79,4 eta etxebizitzaz aldatzeko %70,2).


- Eskatutako etxebizitzaren batzbesteko tamaina 2008. Urtean 64m²etara hurbiltzen zen lehen etxebizitzarako, eta etxebizitza aldaketarako 71m², aldagai honen joera murriztera zihoala agertuz.
- Edukitze erregimenari dagokionez, etxebizitzaren jabetasuna izateko gehienen nahia da, bi kasuetan %60 inguruan kokatzen delarik.
- Azkenik, esan beharra dago udalerriz aldatzeko jarrera lehenengo etxebizitzaren kasuan nahiko nabarmena dela (hiru laurden inguru udalerria uzteko prest aurkitzen da), baina etxebizitzaz aldatzeko kasuan ez da berdin gertatzen, %37a bakarrik egongo litzateke prest udalerriz aldatzeko.
- Alderdi ekonomikoari dagokionez, aipatzekoa da lehen etxebizitzaren eskatzaileak 168.000 euro ordaintzeko prest egongo liratekeela, hileroko 1.600 euroko diru-sarrerera gordina eta hileroko 580 euro ordaintzeko gaitasuna izango luketelarik.

Eskatutako etxebizitzaren EZAUGARRIAK


	Lehenengo etxebizitza	Etxebizitza aldaketa
BALDINTZA		
Berria	17,5	21,0
2. eskukoa	3,1	4,7
Berdin du	79,4	70,2
Ed/Ee	0,0	4,1
AZALERA ERABILGARRIA		
40 m ² baino gutxiago	4,0	2,9
41etik 60ra m ²	33,0	27,1
61tik 75ra m ²	38,4	28,3
76tik 90ra m ²	19,5	26,6
91tik 120ra m ²	1,0	9,4
120 m ² baino gehiago	0,0	2,6
Ed/Ee	4,2	3,1
Azaleraren batzbestekoa (m²)	64,1	71,3

	Lehenengo etxebizitza	Etxebizitza aldaketa
JABETZA		
Jabetza	59,6	63,5
Alokairua	9,8	16,9
Berdin du	30,6	19,6
LEKUA		
Auzo bertan	9,5	39,1
Udallerri bertan	61,9	49,4
Eskualde bertan	27,6	9,9
Beste eskualde batean	1,0	1,0
Ed/Ee	0,0	0,5
UDALERRIZ ALDATZEKO JARRERA		
Bai	73,2	37,0
Ez	22,3	52,1
Ed/Ee	4,5	11,0


Etxebizitza baten beharra duten pertsonen hileroko diru-sarrera
(Hileroko diru-sarrera garbia)



Etxebizitza baten beharra duten pertsonen hileroko ordainketa gaitasuna



Etxebizitza baten beharra duten pertsonen bere gain hartu dezaketen prezio altuena
(bere gain hartu daiteen prezio altuena)



LABURPEN FITXA 2 : ETXEBIZITZA

4.1. ETXEBIZITZEN EZAUGARRIAK

- Eskualde eremuan Arrasatek etxebizitza guztien %35,2a biltzen du.
- 2006-2009 urte bitartean etxebizitzaren hazkuntza jarraia, %10 baino gehiago 9.986 etxebizitzetara iritxi arte.
- 2008-2009 urteetan zehar etxebizitzak %5,2 hazi ziren Bergarako %1,1en aurrean.
- Hala ere, azalera erabilgarrian etxebizitza dentsitatea (etxebizitza/biz) Gipuzkoako batzbestekoaren dentsitatearen eta eskualdeko udalerrien batzbestekoaren azpitik –Bergara eta Oñati-.
- Etxebizitza hutsaren pisua hazten doa 2009an erregistratutako %13,27 eta familia etxebizitzaren antzintasuna ere
- Etxebizitzaren erosotasun indizea ona da eta eskualdekoaren antzekoa



4.2. ETXEBIZITZAREN ERAIKUNTZA ETA SALMENTA

- Arrasaten etxebizitzaren eraikuntzaren bizitasun handia, Gipuzkoak duenarena baino altuago, bai etxebizitza berriak egiteko lizentzietan, bai Babes ofizialeko etxebizitzak bukatzerakoan.
- Higiezinaren salmenta handia udalerrian 2009 arte, etxebizitzaren eraikuntza bizitasun handiaren isla, batez ere 2008 eta 2009 urteetan zehar 300 eraikuntzatik gora urte bakoitzeko. Urte horretaz geroztik salmentak erdira jeisten dira
- Etxebizitza berrien kopuru handia %95.



4.3. ETXEBIZITZAREN BEHARRA ETA ESKARIA

- Etxebideko izen-ematearen bidez babestutako etxebizitza potentzialaren eskariaren estimazioa, guztira 1.579 etxebizitza; 1.243 erosteko eta 1.015 alokatzeko.
- Estimazio zehatzago bat egiteko asmoz, eskaeren bikoiztasunak doitu beharko lirateke (bikoteek egiten duten banakako eskaerak...) eta etxebizitza horien erosketa/alokairuari aurre egin ezin dioten eskatzaileak (%14ak inguruk 12.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzte probintzia mailan)
- Babestutako etxebizitzaren eskaeraren garapenaren atzerakada, Bergarakoaren antzera.
- Datu erabilgarrien bidez merkatu askearen eskaria estimatzeko ezintasuna. Hala ere, 2008ko etxebizitzaren behar eta eskaria inkestaren bidez lortutako datuen arabera, Gipuzkoan eta eskualdean ere etxebizitzaren behararen indizearen beherakada nabarmen bat antzematen da.




3. GARAPEN EKONOMIKOA

3.1.- Enpresa-sarea eta jarduera ekonomikoaren garapena

Debagoiena eskualdearen ezaugarri nagusia historikoki bere industria eta manufaktuzio tradizio luzea izan da, dena burdinaren eraldaketa eta mekanizazioarekin hasi zelarik.

Gaur egun, eskualdeak EAEko industria sareko enpresa garrantzitsuenak bertan aurkitzen dira. Gainera populazio osoaren jardueraren %53,6 industria sektoreak ordezkatzeko du; EAEn eta Gipuzkoan aldiz, ehuneko hau %32 eta %34an aurkitzen dira.

Udalerriaren aurre analisia gisa, industria sektoreak udalerrian duen garrantzia ikusi ondoren, lehenik eta behin udalerriko enpresa establezimenduen kopurua eta azken hamar urteetan jasan duten garapena aurkeztuko da.




Iturria: Euskadiko Jarduera Ekonomikoen Direktoria (DIRAE)

2008. Urtean enpresa-establezimenduen gailurra lortu ostean -1.668 establezimendu -%7,5--
2009-2010. Urteetan establezimenduak nabarmenki egin zuten behera, 2000. Urtean zeuden mailara iritxiz -1.522 establezimendu-.Horrela, establezimendu berrien sorrera 2005 urteaz geroztik gutxitzen joan da -%7,17tik %4,89ra 2009. Urtean.

Aurreko urteetan baino kopuru xumeagoa diren enpresa hauek, **2010. Urtean 2009 urtean baino %5 pertsona gehiagori lana ematea lortu zuen, zehatz mehatz 13.802 pertsonari.** Datu hauek 2003an lortutakoaren antzekoak dira, baina ez du 2005. Urteko enplegu zifra harrapatzen -14.441 pertsona-.

Enpleguaren garapena Arrasaten 2000-2010




Iturria: Euskadiko Jarduera Ekonomikoen Direktoria (DIRAE)

Enpresa kopuru murriztu horretan dagoen enplegu zifra altuak, enpresa- batzbesteko dimentsio handiagora bideratzen du, 9,07 enplegutara iritxiz, 2006an izan zen balore antzekoa.

Arrasateko enpresa kopuruaren dimentsioa, eskualdeko beste udalerriekin alderatuz gero, neurrizkoa dirudi, Arrasateko enpresa establezimendu kopuruak Beasaingoarena bakarrik gainditzen du, 2010. Urtean 1.208 enpresa establezimendu zituelarik. Horrela, Arrasateko biztanleko enpresa establezimendu balore mugatua agertzen du, Tolosak aldiz, 10,2 establezimendutara iristen da.


Enpresa-establezimenduak. Arrasate eta Erreferentziako eskualdeko udalerrien arteko alderaketa 2010



Iturria: Euskadiko Jarduera Ekonomikoen Direktoria (DIRAE)

Hala ere, enpleguari dagokionez, erreferentziazko udalerriek baino abantaila handiagoa dauka Arrasatek (udalerrian bertan aurkitzen diren enpresa industrial handiak direla eta). 2009-2010. Urteetan zehar Arrasatek jasan duen garapen positiboa, 13.802 enplegurekin, Durango, Beasain eta Tolosaren enplegu zifrekin kontrastatzen du, beraienak, 6.500-7.500 enplegu inguruan baidabiltza 2010. urtean.

Enplegua eta de Enplegu/udal-populazioaren Ratio. Arrasate eta erreferentziako eskualdeko udalerriek alderaketa . 2010



Iturria: Euskadiko Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE) eta elaborazio propioa

Gainera hiru eskualdeko buruek 2009-2010. Urtean enplegua galtzen doaz, Durangok esaterako 681 enplegu galdu ditu -%8,3 murriztu da-, Arrasatek berriz, 673 enplegu irabazi ditu -%5,1 hazi da- .

Enplegu garapena eta erreferentziazko eskualdeko udalerrri-buruak 2009-2010

	2009	2010	%2010/2009	Diferentzia 2010/2009
Arrasate/Mondragón	13.129	13.802	%5,1	673
Beasain	7.745	7.492	-%3,3	-253
Durango	8.237	7.556	-%8,3	-681
Tolosa	6.846	6.480	-%5,3	-366


Iturria: Euskadiko Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE)

Horrela, Arrasaten sortutako enplegua populazio osoaren %64,4 ingurukoa da, Durango eta Tolosarena aldiz, (beraien enpresa egiturak hirugarren sektorean pisu handiagoa duena, dimentsio txikiagoko enpresekin), populazioaren %26,4 eta %36,1 dira soilik.

3.2.- Sektore egitura

Arrasateko sektore egitura, tradizioz, arestian aipatu bezala, sektore industrialaren eta kooperatiba eremuen pisuak markatu dute. Zehazki, 2010. Urtean industria sektoreak okupatutako populazioaren %49a biltzen du, zerbitzu sektoreak aldiz, %45,3 biltzen duen bitartean. Ondoren eraikuntzak jarraitzen du %5,3ko pisuarekin eta azkenik, lehen sektoreak %0,34ko balore marginal bat duelarik.

Okupatutako 16 urte baino gehiagoko populazioaren banaketa 2010 Arrasate



Iturria: Euskadiko Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE)


Establezimendu terminoetan, zerbitzu sektorea, enpresa establezimendu gehien biltzen duen sektorea da, 2010. Urtean 1.164 establezimendu zirelarik, hau da, guztiaren %76,48 da. Eraikuntza sektoreak, bestalde, 239 establezimendu biltzen ditu eta bigarren sektoreak 119 (%7,8 eta %15,7 errepresentatzen dutelarik).

Establezimenduak lurralde eta jardueraren arabera 2008-2010 Arrasate

	2009		2010		2009/2010 garapena	
	c.a.	%	c.a.	%	c.a.	%
Industria eta energia	143	8,69	119	7,82	-24	-%16,8
Eraikuntza	290	17,62	239	15,7	-51	-%17,6
Zerbitzuak	1.213	73,69	1.164	76,48	-49	-%4,0
Jarduerak orotara	1.646	100	1.522	100	-124	-%7,5

Iturria: Euskadiko Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE)


Arrasateko establezimenduen % sektoreka (%) 2010



Iturria: Euskadiko Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE)

Garapena kontutan hartuz, 2009-2010. Urte bitartean, **industria eta eraikuntza sektoreko establezimenduak dira gehien murrizten direnak -%17 eta 18ren artean-**, kuantitatiboki, eraikuntzan 51 establezimendu gutxiago eta industrian 24 establezimendu gutxiago suposatzen dutelarik. Adiera absolututan, zerbitzu sektoreak 49 establezimendu enpresarial galtzen ditu epe horretan bertan.

Sektore ekonomikoen balore erantsi gordinaren garapenaren banaketa 2005 eta 2008



Iturria: Eustat

Azkenik, 2008. Urtean erregistratutako BEGa, industria sektorean eta eraikuntzan 2005. Urtearekiko murriztuz doa -3 eta puntu portzentual 1 hain zuzen- arestian aipatutako joerarekin bat datorrelarik. Hirugarren sektorearen kasuan, 5 puntu portzentual igotzea lortzen du 2005-2008 urte bitartean.

3.2.1. Lehen sektorea

Lehen sektorea gaur egun Arrasateko ekonomian baztertua aurkitzen da, populazio okupatuaren %0,3a besterik ez baitu suposatzen udalerraren ekonomian.

Zentzu honetan, nekazaritza-abeltzantza 235 ustiapen daudela (baserri) udalerrian esan beharra dago, eta bertan, dedikazio osoa duten 50 pertsonak lana egiten dute; hau da, populazio aktiboaren %0,5a. Familiako baserriko lanak industriako lanarekin bat egiten dituzte gehienetan, hori dela eta, nekazaritza eta abeltzantza ustiapen gehienak lanaldi erdian bakarrik ustiatzen dira eta diru-sarerra gehigarri bezala gehienetan.

- Arrasateko populazio handi batek bertan lan egiten du. Udalerritik kanpora lanera doan populazioa %34 baino gutxiagokoa da eta Gipuzkoaren batzbestekoaren oso azpitik %50.
- Eguneroko joan-etorrian lan egiten duten pertsona gehienak auto partikularra erabiltzen dute. %6ak bakarrik garraio publikoa erabiltzen du.
- Hala ere, populazioaren %75 20 minuto baino gutxiago irauten du lanera joaten.
- Bestalde, Arrasaten ikasleen %57a egunero udalerritik kanpora doa ikastera, zifra hau handia da Lurralde Historikoaren batzbestekoarekin alderatuta, %52,75.



II.- ETORKIZUNEKO AGERTOKIA

1. METODOLOGIA

Proiekzio ereduak EUSTATEk 2006an egindako proiektzio demografikoan oinarrituta daude. Hasiera batean, edozein ingurune geografikoaren aldaketan eragiten duten adierazle nagusiak identifikatu dira, hiru lurralde historikoetan.

Analisisa egungo populazio egituratik habiatu da, adin talde handien arabera. Hurbilketa honek balio izan du, Arabako Lurralde Historikoa alde batera uzteko, Arabak duen populazioaren egitura oso zahartuta aurkitzen baita.

Ondoren, gainerako adierazleak aztertzen dira Arrasate kasurako, Bizkaia eta Gipuzkoa. Bi baldintzaren arabera egituratu da:

- **Barneko baldintzak edo faktoreak**, populazioaren barne hazkundera baldintzatzen dutenak:

- Ugalkortasun tasa orokorra
- Jaiotze tasa gordina
- Heriotza tasa gordina
- Hazkunde begetatiboa

- **Kanpoko baldintzak edo faktoreak**, Populazioaren migrazio mugimenduarekin lotuta:

- Barne migrazio saldoa
- Kanpo migrazio saldoa
- Inmigrazio tasa

Demografia adierazleen alderaketa taula

	ARRASATE	BIZKAIIA	GIPUZKOA	ARABA
Populazio egitura 2010				
16 urtetik beherakoak	13%	13%	15%	14%
16 eta 64 urte biratekoak	66%	67%	66%	68%
65 urte eta gehiagokoak	21%	20%	19%	17%
Barneko baldintza edo faktoreak				
Jaiotze tasa gordina (%o biz) 2009	7,67	9,14	10,11	
Ugalkortasun tasa orokorra (jai/ emak 15 -49) (%o biz) 2009	34,92	38,27	43,51	
Heriotza tasa gordina 2009	9,12	9,42	8,87	
Hazkunde begetatiboa / POP 2010	-0,15%	-0,03%	0,12%	
Kanpoko baldintza edo faktoreak				
Inmigrazio tasa, 2010	4%	6%	6%	
Kanpoko migrazio saldoa 2009 /POP 2010	0,48%	0,64%	0,33%	
Barneko migrazio saldoa 2009 /POP 2010	-0,33%	0,00%	-0,02%	
Populazioaren urteen arteko aldaketa 2009 2008rekiko	0,41	0,54	0,66	

Iturria: Instituto Nacional de Estadística. Revisión del Padrón municipal 2010. Datos por municipios. Eustat: Populazioaren mugimendu naturala eta migrazio mugimenduen estatistika.

Egindako azterketaren emaitzak Arrasatek eta Bizkaiak duten demografia joeren antzekotasuna agertzen du, populazio egitura homogenea agertzen baitute, batez ere menpekotasuna duen populazioari dagokionez –haurrak eta adinekoak-; jaiotza, ugaltze eta heriotza tasa antzekoak; hazkunde begetatibo negatiboa; migrazio saldoa eta urteen arteko aldaketa analogoak.

Azterketa honetatik habiatuz, Arrasateko populazioaren proiektzioa kalkulatu da, adin maila bakoitzeko –bost urteko- 2010. Urtez geroztik (datu gaurkotuak) 2020 urte arte, adin tarte bakoitzak agertzen duen aldaketa berdinak aplikatuz, Bizkaiaren kasuan, EUSTATEk 2020rako egindako proiektzioarekiko.

EUSTATEko proiektzio hipotesiak ondorengo argumentuetan oinarritzen da:

- **2020rako bizi itzaropena**, gizonezkoentzat 81,2 eta emakumezkoentzat 87,2 izango da.
- Momentuko **ugaltasun maila** eta belaunaldiak antzekoak izango dira, EAEn emakume bakoitzeko 1,4 seme-alababaloretatik hurbil.
- **Dagokion heriotza kurba sortzea**. Heriotza probabilitate kurba sintetizatzen du, bizi-ziklo etapekin identifikatzen diren osagai batzuetan.

- **Kanpoko inmigrazioaren** proiektzioa hiru fasetan eman da. Lehenengoan EAEn urtero sartutako bolumena ezarri da, eta sexuaren arabera banatu da, maskulinitate koefiziente batzuek oinarritzat hartuz. Bigarren fasean, migrazio patroia zehatz bat ezarri da, proiektatutako inmigrazio fluxu bakoitzeko, adinaren arabera banatzeko asmoz. Azkenik, hirugarren fasean, inmigranteak sexu eta adinaren arabera banatu dira Lurralde Historikoetan.
- **Inmigrazio ateraldiak:** formulatutako hipotesiak EAeko populazioaren migrazio propensioa %10eko hazkunde bat izango duela epe motzera adierazten du eta maila horietan egonkortuko dela ondoren.
- **Migrazioaren intentsitatea.** Hipotesi orokorrak dio migrazioaren intentsitatearen hazkunde bat emango dela epe motzera eta ondoren, mende hasierako maila beretsuetara murriztuko dela.
- **Hazkunde tasa:** Bizkaian eta Gipuzkoan azken urteetan populazioaren murrizketa bat emango da.


2. ARRASATEN 2020RAKO AURRIKUSITAKO DEMOGRAFIAREN GARAPENA ETA EGITURA ADIERAZLEAK

2.1. Arrasaterako aurreikusitako demografiaren garapena 2020

Demografia proiektzioak kalkulatzeko proposatutako metodologiarekin bat, Arrasateko populazioa 2010ean 22.011 pertsonatik 2020ean 22.256 pertsonetara pasatuko da, hauetatik 11.020 (%49,5) gizonezkoak izango dira eta 11.241 emakumezkoak. Epealdiko hazkunde orokorra %1,11koa izango da, urteko batazbesteko tasa %0,11 izango delarik. Hazkundera ez da homogenea izango, lehenengo urteetan zentratuko da, epe ertainera aldez, geldialdi bat emango da, proiektatutako epealdiaren bukaeran.

2010-2020 en Arrasate Proiektzioak. populazio orokorraren garapena


	GUZTIRA	Gizonezkoak	Emakumezkoak
2020	22.256	11.020	11.241
2019	22.262	11.026	11.241
2018	22.271	11.040	11.243
2017	22.273	11.034	11.239
2016	22.260	11.038	11.228
2015	22.250	11.034	11.223
2014	22.220	11.024	11.208
2013	22.192	11.010	11.188
2012	22.148	10.999	11.161
2011	22.092	10.97	11.120
2010	22.011	10.933	11.078



Iturria: bertan landutakoa ondorengoatik habiatuz: Eustat. Proiektzio demografikoak 2020

Desberdina izango da adin maila desberdinaren arabera. Horrela, **haurren populazioa**, Oitiko 14 urte bitartekoak, 2010. Urtean populazioaren %11,9 ziren, pixkanaka haziz joan da bere ordezkaritza %12,3ra. Zifra absolutuetan hazkundea 129an izango dela estimatzen da.


Oitiko 14 urte bitarteko haurren populazioaren garapena en Arrasaten . Proiekzioak 2010-2020



Iturria: bertan landutakoa ondorengoatik habiatuz: Eustat. Proiekzio demografikoak 2020

Helduen populazioari buruz, 2020. Urtean bere pisua 357an gutxituko duela aurreikusten da. Populazio guztiaren pisu espezifikoa 2010ean %67,18 izatetik 2020an %64,84 izatera pasako da. Epealdi guztiaren urteko hazkunde tasaren batzbestekoa %0,24 izango da, erreferentziarako epealdi hasieran hazkunde handiagoa emango delarik.


15tik 64 urte bitarteko populazioaren garapena Arrasate. Proiekzioak 2010-2020



Iturria: bertan landutakoa ondorengoatik habiatuz: Eustat. Proiekzio demografikoak 2020

Populazioaren galera emanazpateko dauden adin taldeetan nabarmenagoa da (20 eta 44 urte bitartean). Talde hau 2010. Urtean baino 1.226 pertsona gutxiago izango ditu, hauda, %16,7ko murrizketa bat emango delarik, urteko batzabesteko murrizketa ia %1,7koa suposatuko lukeelarik.


20 eta 44 urte bitarteko populazioaren garapena Arrasaten. Proiekzioak 2010-2020



Iturria: bertan landutakoa ondorengoatik habiatuz: Eustat. Proiekzio demografikoak 2020

2010-20 urteen arteko hazkunde orokorraren %1,11aren aurrean, 64 urte baino gehiagoko populazioa %14,46 haziko da, 5.271 pertsona izango direlarik guztira, 2010ean baino 666 pertsona gehiago. 2020. Urtean 2.534 pertsona izango dira 75 urte edo gehiago izango dutenak. Adineko pertsonen populazioa %23,7a izango da, 79 urtetik gorakoak %6,9 izango direlarik.


65 urtetik gorakoen populazio garapena Arrasaten. Proiekzioak 2010-2020




Gauzatutako proiektzioaren ondorioz, Arrasateko piramideak agertzen dituen aldaketak 2020rako 2010 urtearekin alderatuz, bi faktoreen ondorio izango dira. Alde batetik, populazioaren egiturak ezaugarritzen dituen inertzia sendoaren ondorioz, kopuru diferentzia garrantzitsuak dituzten piramideko adin tarteekin. Adin tarte handiena heldu-gazteen tarteena da, eta bere baitan heldu-adinekoen tartera pasako da, pertsona murriztuekin. Honek 20 eta 39 urte bitarteko populazioaren galera bat ekarriko du eta 45 urtetik gorako hazkunde bat. Populazioaren hazkundera piramidearen tontorrean nabarmena izango da aurreko belaunaldien etorrerarekin eta adineko jendearen bizi kalitatearen hobekuntzarekin.

Azkenik, 20 urtetik beherako populazioaren demografia fenomeno eta egituraren arteko erlazioa nabaritzen da, haur eta gazte populazioaren berreskurapen bat egongo baita, ugalkortasunaren eta inmigrazioaren ondorioz. Hala ere, ondoren adin ugalkorrean dauden emakumeen murrizketak 2020an 4 urtetik beherakoak 2010. Urtean izandako kopuruaren behetik egotea bultzatuko du.

Arrasateko populazio piramidea 2010




Arrasateko populazio piramidea 2020



Iturria: elaborazioa hondokotik habiatuz: INE; Revisión del Padrón Municipal 2010 eta Eustat. Proiektzio demografikoak 2020

Gizonezkoak 60 urtekoen maila arte maila guztietan nagusi dira, hortik aurrera emakumeak, bizi-itxaripen handiagoa dela eta, gehiago izatera pasako dira, urteak joan ahala beraien presentzia handituz, horrela 84 urtetik gorakoen artean 10 pertsonetatik 7 emakumezkoak izango dira.

2020rako Arrasateko populazioaren banaketa generoaren arabera



Iturria: elaborazio propioa hondorengoatik habiatuz: Eustat. Proiekzio demografikoak 2020

2.2. Egitura adierazleak

ADIERAZLEAK			
DEMOGRAFIA	2010	2020	OHARRAK
Proyección de la población	22.011	22.256 (1)	Epealdiaren hazkunde orokorraren estimazioa %1,11ekoa izatea espero da, urteko batazbesteko %0,11ko tasarekin. Hazkundera lehen urteetan emango da batez ere, epe ertainera aldiz, proiektatutako urteetan zehar populazioaren murriztapen bat bideratuko duen geldialdi bat emango da
Haurtzaro indizea (0 eta 14 urte bitartekoen populazioaren ehunekoa udalerriko populazio guztiarekiko)	%11,9	%12,3(1)	15 urtetik beherakoak %4,9 haziko da, baina adinekoak baino erritmo geldoago batean.
Zahartzaro indizea: 65 urte eta gehiagoko populazioa (%) 65 urte eta gehiagoko populazioaren ehunekoa udalerriko populazio guztiarekiko.	%20,9	%23,7(1)	64 urte baino gehiagoko populazioa %14,46 haziko da
Gainzahartzaro indizea: 75 urte eta gehiagoko populazioa (%) 75 urte eta gehiagoko populazioaren ehunekoa udalerriko populazio guztiarekiko	%10,4	%11,4 (1)	79 urte baino gehiagoko populazioa %24ean haziko da eta 1.536 pertsona bilduko ditu taldean.
Menpekotasun demografiko indizea (%) "Menpekotasuna" duten adinekoen kopurua (0tik 19 urte bitartekoak eta 65 urtetik gorakoak) "ekonomikoki produktiboak" diren pertsonetik (20tik 64 urte birtartekoak)	%58,1	%68,5 (1)	Erdiko taldea murriztuz, menpekotasun tasa handiago egingo da modu jarraian.
Gainzahartzaro indizea: 75 urte eta gehiagoko emakumeak (%) 75 urte eta gehiagoko emakumeen ehunekoa udalerriko populazio guztiarekiko	%12,9	%14,0 (1)	Populazioaren gainzahartzaroa emakumezkoen eragingo die batez ere.
Gainzahartzaro indizea: 75 urte eta gehiagoko gizonezkoak (%) 75 urte eta gehiagoko gizonezkoen ehunekoa udalerriko populazio guztiarekiko	%7,9	%8,8 (1)	Gizonezkoen gainzahartzaroa emakumezkoena baino askoz ere baxuagoa izango da.

POPULAZIOAREN MUGIMENDU NATURALA ETA MIGRAZIOAK	2010	2020	OHARRAK
Jaiotza tasa gordina (%). Urte batean behatutako jaiotza kopurua eta urteko populazioaren batzbestekoaren arteko erlazioa da.	%7,67	--	Hiru Lurrealdeetan jaiotze tasak beheraka egingo duela aurreikusten da, hala ere, Arrasateren kasuan, probintziako mailaren nahiko azpitik dagoena jada, beherakada motelagoa izango da.
Ugalkortasun sintetiko orokorraren indizea. Emakume batek bere bizitza ugalkorran hipotetikoki eduki ditzazkeen seme-alaba kopurua adierazten du. Epealdi batean adinaren arabera ugalkortasun tasen baturaren bidez kalkulatu da.	1,30 (1)	1,42 (1)	Ugalkortasun maila gaur egungoaren antzekoak izango dira, emakume bakoitzeko 1,4 seme-alaba inguru.
Gizonezkoen bizi-itxaropena	78,98 (1)	81,23 (1)	2020. Urtean bizi-itxaropenak 81,23 urte izango ditu gizonezkoen kasuan, 2006ko datu estatistikoa baino 1,25 urte gehiago.
Emakumezkoen bizi-itxaropena	85,73 (1)	87,24 (1)	2020. Urtean jaiotzerakoan bizi-itxaropenak emakumezkoen kasuan 87,24 urtera iritxiko da, 2006 urteko 1,51 urte gehiago.
Heriotza tasa gordina. Urte zehatz bateko heriotza kopurua eta urte hortako bertako populazioaren batzbestekoaren arteko erlazioa da.	%9,27 (1)	% 10,03 (1)	Epe horretan hilkortasun tasa hazi egingo da (2009an %9,27tik 2020ko %10,03ra)
Hazkunde begetatibo tasa (1)	--	--	Urteko jaiotza kopurua murrizten joango da etengabe, heriotza zifra aldiz, hazten joango da, horrela hazkunde begetatiboa negatiboa izango da.
Kanpoko migrazio saldoa. (1) Inmigrazio eta kanpo emigrazioaren desberdintasunaren parte hartzea urte batean metatua, udalerriko populazioaren batzbestekoarekiko (%)	--	--	2020 urterate migrazio saldo positiboa urteikusten da, baina intentsitate txikiago batekin: epearen bukaeran hazkunde nulua izango da bi saldoak berdintzerakoan. Sarrera fluxuetan beherapen bat espero da, batez ere atzeritik datoitenei dagokienez. Dena dela, Eustatek dioen bezala migrazioen etorkizuneko estimazioa faktore desberdin asko direla eta zalantza handiak sortzen ditu fenomenoan (ekonomiaren garapena, legeen alderdia, estatistika neurketaren konplexutasuna,...)
Atzerriko populazio inmigrantea	4,47%	--	Hasierako urteetan populazio inmigrantearen presentziaren hazkundea, baina sarrera berrien murriztapena. 2020rako %33 inmigrante atzeritar gutxiago espero da EAEn gau egungoarekin alderatzen bada. (1)

ETXEBIZITZA	2010	2020	OHARRAK
Etxebizitza kopurua (2)	--	--	Joerak etxebizitza kopuruaren hazkundera bat agertzen du. Hazkundera %13koa izan daiteke. 2014. Urteaz geroztik murrizketa bat izango dela aurreikusten da. Kontzeptuetan aldaketak eta familia tipologiak etxebizitza nagusian pertsonen kopuruaren murrizketa bat izatea ahalbidetu du. Pertsonen bizi-iraupena luzatzeak, guraso bakarreko familiak maizagoak izatea edo pertsona bakarrek bizitzen egoteak, etb, etxebizitza bakoitzeko okupazio tasaren murrizketa azaltzen du. Fenomemo hauek, etxebizitza behar desberdinak izatea bultzatu du: txikiagoak eta zerbitzu hobekoekin, babes ofizialeko etxebizitzak eta alokairu erregimeneko hazkundera.
Familia mota (2)	--	--	Erreferentziako pertsona gazteak dituzten etxebizitza kopurua (20-34 urte) murriztu egingo da, adin tarte honteko populazioa jeitxi egingo baita. Adin ertaineko pertsonak bizi diren (35-64) etxebizitza kopurua zertxobait haziko da, eta adineko jendea erreferentzia duten etxebizitzak (65 urte baino gehiago) esanguratsuki hazi egingo dira, 2020ko etxebizitzak %38 izan arte.
Etxebizitza tamaina (2)	2,54	--	Etxebizitza mota desberdinak hazteak (pertsona bakarrekoak, adineko pertsonak, etab.) etxebizitzaren batzbesteko tamaina txikitzea ekarriko du
Emanzipatzeko adin egokia (20-44 urte)	%33,4	%27,5 (1)	Emanzipatzeko adinean dagoen populazioa 1.226 pertsonetan murrizketa
Pertsona bakarreko etxebizitzak (2)	--	--	2006tik 2020ra pertsona bakarreko etxebizitza proportzioa (%21,5) EAEn handitu daiteke 3,5 puntu portzentual eta erdiak baino gehiago 64 urte baino gehiagoko pertsonak osatuko dute.

HIRIGINTZA	2010	2020	OHARRAK
Populazioaren dentsitatea	--	--	Gaur egungo egoera antzekoa
Irisgarritasuna (2)	--	--	2008 geroztik udalerriko irisgarritasun bertikala hobetzea ahalbidetu duten igogailu publikoak ezarri dira. Hala ere, 2020an mugitzeko arazoak dituzten 64 urte baino gehiagoko pertsonen hazkundeak %25ean, etxebizitza publikoetako irisgarritasun ahobetzen jarraitzea eskatuko du.
GARAPEN EKONOMIKOA			
Jarduera ekonomikoaren garapena (2)	--	--	Egungo produktibitate maila mantentzen bada produkzioaren eta hazkunde ekonomikoaren gutxitzea emango da.
Sektorearen egitura (2)	--	--	Industria sektoreak gazteen lanpostu proportziorik handiena biltzen du (35 urtetik beherakoenak) baita senior mailako lanpostuak ere (55 urtetik gorakoenak). Zahartzaro indize handienak ondorengo esparruetan ematen da: hezkuntza, osasuna eta garraio eta komunikazioak.
LAN-MERKATUA			
Adin aktiboan dagoen populazioa (15tik 64 urte bitarte)	%67,2	%64,8 (1)	Lanerako adina duen populazioaren murrizketa Actibitate tasaren hazkundera, batez ere, emakume eta 55 urtetik gorakoena.
Okupazio eta langabezia maila (2)	--	--	Okupatutako populazioaren hazkundera, 2020. Urtean Europakoaren maila antzekoak lortu arte (okupatuen tasa %72). Kualifikatutako eskulanaren murriztea (kualifikazio altuko profesional falta).

GIZARTE- ONGIZATEA	2010	2020	OHARRAK
MENPEKOTASUNA			
Menpekotasuna duten pertsonen egonkortasuna (%33ko ezintasun maila baino gehiagokoak).	%7,7	--	Populazioaren zahartzeak osasunaren kalitateak okerrera jotzea eragingo du.
Menpekotasun indizea (0-19 eta 65 eta gehiagokoak 20-64 urtekoen gain) ¹⁰	%58,1	%68,5(1)	Para 2020 se prevé a nivel de la CAPV: Mugikortasun arazoak, beren buruaren zainketa eta etxeko bizitzan arazoak dituzten 64 urtetik gorako pertsonen hazkundera %25ean.
Belaunaldi aldaketa indizea (0-19 65 eta gehiagoko gain)	%75,7	%71,7 (1)	Osaun zerbitzuak gehiagotan erabiltzearen ondorioz osasun gastua handitzea. Hala ere, baliteke populazio talde honen zati handi batek (64 urte baino gehiagokoak) menpekotasun arin bat izatea edo atentziorik behar ez izatea (2)
GIZARTE-ZERBITZUETAKO ESTALDURA ADIERAZLEAK			
3. Adinekoentzat eguneko zentruetan plazak (helburua: egungoak mantentzea, 65 urte edo gehiagoko 1.000 biztanleko 6,5 plaza)	30	34-36	EAE mailan 2020rako dagoen joera estaldura mailak hobetzean datza, gizarte-zerbitzuek zaintzen dituzten 64 urtetik gorako populazioaren ehunekoa %9tik %13ra pasatzea izango litzateke. (2)
3. Adinekoentzat erreidentzietan plazak (helburua: egungoak mantentzea, 65 urte edo gehiagoko 1.000 biztanleko 31 plaza)	143	163-170	
Ezindutako pertsonentzat eguneko zentruetan plazak (%o biztanleko)	63	70	
Ezindutako pertsonentzat erresidentzietan plazak (%o biztanleko)	20	25	
Telealarma zerbitzua	211	250	
Etxeetara Laguntza Zerbitzua	184	220	
PRESTAZIO EKONOMIKOAK			
Oinarrizko errenta	--	--	Demografiaren zahartzaroak, adineko jendeen artean pobrezia maila okertzeko harrisku handia ekar dezake. Egun, 65 urte edo
Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak	--	--	

¹⁰ Menpekotasun demografiko indizea (%). "menpeko" adina duten persona kopuruaren erlazioa (0tik 19 urte vitarte eta 65 urte edo hegiagokoak) "ekonomiko produktiboak" diren pertsonetara.

Kotizatu gabeko pentsioak	--	--	
---------------------------	----	----	--

HEZKUNTZA , KULTURA ETA EUSKARA	2010	2020	OHARRAK
HEZKUNTZA			
Otik 4 urte bitartekoen ehunekoa	%4,3	%3,8 (1)	2020rako 5 urtetik beherako populazioaren murrizketa bat aurrakusten da 98 pertsonetan.
Eskolako adinean dagoen populazioaren garapena	%15,8	%17,0 (1)	2020an DLH eta DBHtzetan ikasleen hazkunde bat izango da 289 pertsonetan.
Goi-mailako hezkuntza	--	--	Bigarren hezkuntza ondoren populazioaren murrizketa: batxilergoa, LH eta unibertsitate hezkuntzan. (2)
EUSKARA			
Unibertsitatekoa ez den prestakuntzaren euskalduntzea	--	--	Orokorrean Arrasateko biztanleen euskalduntze jarraitua, batez ere ikasle populazioaren artean.
Populazioaren euskalduntze maila	--	--	
Euskaltegietan matrikulazioak	--	--	Euskal-gizartearen euskalduntze jarraia, batez ere, ikastolen bidez, euskaltegien gutxitzea ekar dezake. Hala ere, euskara ikasteko beharra izango duten talde berrien sorrerak: komertziantek, inmigranteak, guraso eta profesionalak; eta irakaste moduluen malgutasunak, teknologia berrien erabilerak inertzia hau geldiarazi dezakete. (3)
KULTURA			
Kultur-baliabideak	--	--	Gizarte, kultura eta hezkuntza jardueren hazkundera, orokorrean populazioari zuzenduta eta batez ere adinekoei zuzenduta. Elkarrekin eta boluntariora hazkuntza. (1).
MUGIKORTASUNA			
Automobil- parkea	--	--	Automobil-parkea handitzea era jarraituan, dimentsio txikiko autoak, elektrikoak eta kontsumo murriztukoak geroz eta gehiago direlarik.
Txirrinda-bide sarea edo bidegorriak	--	--	Mugikortasun jasangarriaren esparruan, bizitza osasungarri bat eta ingurugiro erakargarri eta atsegina bultzatzea geroz eta gehiago.
Egunero joan-etorri kopurua	--	--	Garraio sare geroz eta osatuagoaren bidez eguneroko joan-etorrien hazkunde jarraitua.

Iturria:

(1) Elaborazioa ondorengoatik habiatuz: Eustat. Demografia proiektioak 2020.

(2) CES. Consejo Económico y Social Vasco . EAEn aurreikusitako demografiaren garapenean ekonomia eta gizartearen eragina (2011)

⁽³⁾ Helduak Alfabetatze eta Berreuskalduntze Erakundea HABE: euskaltegi egoerari eta etorkizunari buruzko txostena (2007).

III.- ONDORIOAK

1.- POPULAZIO EREMUAN

Arrasate, 22.011 biztanlerekin, Debagoienako udalerrri nagusia da. Populazio dentsitate handia dauka, km² ko 715 biztanle dituelarik, Gipuzkoak duen batazbestekoa baino askoz altuagoa. Bere populazioaren %85 Alde-Zaharrear, Musakolan eta Uribarrin bizi da.

Gipuzkoako herri honek eskualdeko populazioaren %36 biltzen du, gainontzeko udalerrien populazioa gaindituz, Bergara eta Oñati esaterako. Azken 14 urteetan populazioaren murrizketa jarraitua izan da, bere biztanleen %10a galdu arte. Hala ere, erreferentziako beste udalerriek, Oñati, Beasain, Tolosa eta Durango kasu, epe horretan biztanleak irabazi dituzte. Zorionez, azken urteetan, populazioa mantendu egin da 22.000 biztanle ingurutan.

Baina, zeintzuk dira egoera honen zergatiak? Eta etorkizunean nola garatuko dira? Udalerrriak izan duen populazio aldaketa –hazkundera edo murrizte- bi faktoreen arabera eman dira: populazioaren mugimendu naturala batetik, eta bestea kanpokoak: migrazio mugimendua.

Populazioaren **mugimendu naturalari** dagokionez, adierazleak ondokoak dira:

- **Bizi-itxaropena luzatzea.** Gradualki hazkundera, bai gizonezkoentzat bai emakumezkoentzat. Gizonezkoen kasuan gaur egun bizi-itxaropena 78,3 urtekoa da eta 2020an 81,2 izango dira; emakumezkoen kasuan aldiz, 85,6 urtetakoa da bizi-itxaropena gaur egun eta 2020an 87,2 izango dira.
- **Populazioa zahartzea.** Arrasateko populazioaren egituran adin nagusikoek pisu handiagoa dutela agertzen da, gazteen galerarekin. Hau populazioaren zahartze eta gainzahartze tasaren hazkundera dela eta ikusten da (gaur egun %20,9 eta %10,4 inguru, Gipuzkoak duen mailaren gaineratik), eta emakumezkoen zuzenago eragiten dielarik. 2020. Urtean populazioaren zahartzea larriagotu egingo da. Egindako proiektzioen arabera 65 urtetik gora pertsonak populazioaren %24 izango da eta 75 urtetik gorakoak %11,4.

- **Jaiotze tasa baxua eta egonkorra.** Azken 8 urteetan zehar, jaiotze tasa 1.000 biztanleko 7 eta 8 jaiotza dira Tasa hau Gipuzkoak duenaren 3 puntu portzental behetik aurkitzen da (%10,14). 2020rako aurreikuspenak txarragoak dira, hipotesiak dio hiru lurraldeetan jaiotzak murriztuz joango direla. Hala ere, Arrasateren kasuan, egun tasa hori nahiko baxua denez, murrizketa txikiagoa izango da, egonkortasun joera izango duelarik. Etorkizuneko ugalkortasun maila gaur egungoaren antzekoa izango da, emakume bakoitzak 1,4 seme-alaba inguru izango dituelarik.
- **Heriotza tasaren hazkundera.** Populazioaren zahartzeak heriotza tasa mugatzen du, horrela jaiotze tasa baino gehiago haziko da. Denbora horietan heriotza tasa haziz joango da (%9,27 2009an, eta %10,03 2020an).
- **Hazkunde begetatibo negatiboa.** Jaiotzeen eta heriotzen arteko desberdintasunak saldo negatiboa ematen du azken urteetan egonkortu dena eta etorkizunean horrela jarraituko duela aurriztuz da.

Migrazio mugimenduari dagokionez:

- Arrasatek **barne migrazio saldo** negatiboa dauka, azken urteetan nahiko murriztu egin dena (2007. Urteko %9,3tik 2009ko %3,3ra pasatuz). 2020. Urtean populazioaren galerak jarraituko du, nahiz eta emigranteen zifra murriztuz joan, sarrerek baino modu apalagoan izango da.
- **Kanpo migrazio saldoa** aldiz, positiboa izango dela uste da 2020. Urte arte, baina hazkunde txikiagoan.
- Epealdiaren bukaeran, **migrazio orokorraren saldoa** nuloa izango da, bi saldoak berdintzen direnean. Aurreikuspenak sarrera fluxuak murriztuko direla adierazten du, batez ere atzeritik datozenak.
- **Atzerriko populazioa**, 2010ean %4,47 dena orotara, Arrasateko populazioaren galera geldituko duena izango da. Datorren urteetan atzerriko populazio inmugrantea haziz joango da, baina 2020. Urtean EAera gaur egun baino %33 gutxiago etorriko dela uste da, eta horrek ziurrenik Arrasaten ere eragina izango du.

Joera hauen ondorioak populazio estratoetan ondorengoak dira:

- Populazioa egonkortu egingo da 22.000 biztanleak gaindituz.
- Epe luzera, populazio gaztearen (0 eta 14 urte bitartekoak) galeraren murrizketa bat aurrikusten da, haurtzaro indizearen berreskuratze apalari esker.
- Emanzipatzeko prest dauden adin taldea (20 eta 39 urte artean), 80. Hamarkadan jaiotako belaunaldi murriztuaren etorrerarekin maila jeisten joango da.
- Lau pertsonatik 1ek 64 urte edo gehiago izango ditu. Gainzahartze tasak gailurra joko du, hauen artean emakumezkoak nagusi izango direlarik.
- Migrazio mugimenduak areagotuko dira (udal-errolan altak eta bajak) eta bizileku aldaketak (udalerrien arteko migrazioak).

2.- ETXEBIZITZA

Populazioaren egituraren zahartzeak eta populazioa gaztearen zailtasunak etxebizitza bat lortzeko, logikoa den bezala, etxebizitzetako bizilagunen zahartzean eragina daukate, familia buruen adinaren hazkundera .

Paraleloki, **etxebizitzetako bizilagunen kopurua** murrizten doa, pertsona bakarrekoak/semelabarik gabeko bikoteak edo familiak eta guraso bakarreko familiak, eta aldi berean, seme-alabak dituzten bikoteak eta ardatz bat baino gehiago dituen familiak beheraka doaz.

Inmigranteen etorrerak ere etxebizitzetako egitura aldatzen ari da. Askotan, bakarrik bizi diren pertsonak dira, beste kasuetan berriz, familia atipikoak dira, guraso bakarreko familiak edo familia zabalak. Hala ere, denek bat egiten duten ezaugarria txirotasun ekonomikoa da.

Bestalde, **Arrasateko etxebizitza-parkeak** 2006-2009 urteetan hazkunde nabaria izan du, 920 etxebizitza berri gehiagorekin, horrietatik asko babes ofizialekoak. Etxebizitzaren hazkunde honek populazioaren murrizketarekin ez dator bat; horrek familiko etxebizitzaren tamaina txikia adierazten du, etxebizitza hauek arrasatearrek hartu baitituzte, eta bestetik, etxebizitza hutsaren tasaren hazkundera, gainontzeko eskualdeko udalerrien batzbestekoaren azpitik egon arren.

Higiezinaren hazkundera eta krisi ekonomikoak eraikuntza eta etxebizitza salerosketak murriztea ekarri du, baita Etxebiden izen-emate kopurua ere. Azken hauei buruz, ezaugarri nagusienak hauek dira: %60a Arrasaten erroldatuta dago; gehienak etxebizitza erosi nahi dute (batez ere berria), hala ere, etxebizitza alokairuan nahi dutenen kopurua ere nabarmena da (%62).

Etorkizunari begira, ezaugarri bereziak dituzten etxebizitzaren beharra nabari da: tamaina txikiagoko etxebizitzak, irisgarritasun errazekoak eta jasagarriak (zahar-berritze lanak areagotzea eragingo dutenak); alokairuan dauden etxebizitzak gora egingo dute, baita baestutako etxebizitzak ere.

Populazioak eta etxebizitzek azaldutako portaera aldaketa dela eta, 2020. Urterako etxebizitza aurrikuspena, orain arte ikusitako beharrak kontutan hartuz, jarraian agertuko diren bi hipotesi landu dira:

1 HIPOTESIA (egonkorra)

Demografia: Egindako estimazioen arabera, 2010-2020 urteetarako espero den populazio hazkundera %1,1ean ezarriko da, gaur egun izan duen populazio galera berreskuratuko duelarik.

Etxebizitzetako familien batzbesteko tamaina: 1996-2009 urteetan izandako etxebizitza bakoitzeko bizilagun kopuruaren murrizketa jarraiaren ondoren (3,28tik 2,54 bizilagunetara pasatuz), zifra egonkortu egingo da, 2,54 bizilagun inguru izanez.

Etxebizitza hutsa: Etxebizitza hutsaren egonkortasuna, 2010. Urtean izan zen maila berea iritxiz, etxebizitza guztien %13,5.

2 HIPOTESIA

Demografia: Arestian egindako populazio estimazio bera mantentzen da.

Etxebizitzetako familien batzbesteko tamaina: Etxebizitza bakoitzeko biztanle kopuruaren murrizketa, 2,47 biztanlera pasatuz, aipatutako 1996-2009 urteetako joera mantenduz (3,28tik 2,54ra pasatuz), baina tamaina txikiago dutenak apalago murriztuko dira.

Etxebizitza hutsa: Etxebizitza hutsaren maila murriztu egingo da, %10,9an jarri arte, 10 urte lehenago izan zuen mailara iritxiz; hau erresidentzia gisa erabilitako higiezinak berreskuratzearekin lotuz (1999-2009 urteetan hazkunde tasa jarraituaren ondoren).

ETXEBIZITZA BEHARREN AGERTOKIA: 2020 IKUSMUGA

AGERTOKIA 1 HIPOTESIAREN ARABERA

Populazioa:	22.256 biztanle
Etxebizitzak:	10.129 etxebizitza (59 etxebizitza gehiago)
Okupatutako etxebizitzak:	8.762 etxebizitzak (48 etxebizitza gehiago)
Etxebizitzetako familien tamainaren batzbestekoa:	2,54 bizilagun etxebizitza bakoitzeko
Etxebizitza hutsak:	Guztiaren %13,5

AGERTOKIA 2 HIPOTESIAREN ARABERA

Populazioa:	22.256 biztanle
Etxebizitzak:	10.112 etxebizitza (42 etxebizitza gehiago, etxebizitza hutsen okupazioa)
Okupatutako etxebizitzak:	9.010 etxebizitza (296 etxebizitza gehiago)
Etxebizitzetako familien tamainaren batzbestekoa:	2,47 bizilagun etxebizitza bakoitzeko
Etxebizitza hutsak:	Guztiaren %10,9

Erakutsitako joera, beraz, etxebizitza parkearen egonkortasunari dagokio, azken urteetan hazkunde nabarmena izan duena, alegia.

Agerleku hauei gehitu beharko zaie, dagoeneko dagoen etxebizitza parkearen kontserbazioari lotutako beharrak eta denboraren nahiz erabileraren ondatze jarraiarekin lotutakoak. Kontzeptu hau ezaugarritzeko orokorrean ezarritako tasa, urteko %0,8 ingurukoa da. Horrek, urteko 80 etxebizitzaren beharra adierazten du. 2020ko ikusmuga honen urteko proiektzioaren estimazioa 2010-2020 **urteetako 800 etxebizitzako emaitza ematen du.**

Zenbateko hau Etxebiden egindako eskaeren antzekoa da. Gaue egun, izen-emateak guztira 1.500 inguruan ezartzen dira, hala ere, berezko eskaera nahiko murriztua agertzen da, bikoiztasuna, etxebizitza erosteko adina baliabide ekonomikorik ez dutenen eskaerak,... dela eta.

3.- GARAPEN EKONOMIKOA

Debagoienako eskualdea, eta zehazki, Arrasateko Udalerria, industria eta manufakturazio tradizio luzeaz ezaugarritzen da, burdina eraldatzean eta mekanizatzean alegia. Euskal industria sarearen enpresa esanguratsuenak bertan kokatzen dira. Hori dela eta, industria sektoreak udalerrriaren jarduera ekonomikoaren erdia baino gehiago berenganatu izanaren arrazoia.

Sektore egiturari dagokionez, industriak populazio okupatuaren erdia hartzen du. Ondotik zerbitzu sektorea dator, horrela eraikuntza eta lehen sektorea azken postuetan agertzen dira populazio okupatuaren %5,3 eta %0,34rekin beateak beste.

Gaur egungo krisi ekonomikoak establezimendu kopuruaren galera eta enpleguaren murriztea ekarri du. Hala ere, 2010ak Arrasatek enpresa handiek bultzatuta, galdutako enpleguak berreskuratzeko balio izan du.

Hala ere, egungo produktibitate maila mantzenduko balitz ere, epe ertainera, produkzioaren eta hazkunde ekonomikoaren murrizketa bat eman daitekela espero da, eta horrek Arrasateko jarduera ekonomikoak eragina izan dezakeena.

4.- LAN-MERKATUA

Arrasateko **populazio aktiboa** azken urteetan era jarraituan hazi egin da. Gaur egun , jarduera tasa Gipuzkoako batzbestekoaren bi puntu gainera aurkitzen da, %52an hain zuzen ere; eta desberditasun hau historikoki mantendu egin da. Bere okupatutako populazioaren ezaugarri esanguratsu bat talde kooperatibistaren pisuarena da, Gipuzkoak duenaren oso gainera.

Bestalde, **langabezia tasa** azken urteetan handituz joan da, Gipuzkoak duen batzbestekoaren gainera jarritik. Azken urtean, berreskurapen sintoma batzuk ageri dira, batez ere, industria sektoreari dagokionez. Aitzitik, hirugarren sektoreak lanpostuak galtzen doa. Hori horrela izan arren, zerbitzu sektorean eta batez ere emakumeetan ematen da **kontratu** kopururik handiena, hau, segmentu honetan dagoen lanpostuaren prekarietateari lotu daiteke.

Epe ertainera, lan egiteko adinean dagoen populazioaren murrizketa bat emango dela espero da, eta horrek eskulanaren defizita ekarriko du, batez ere kualifikazioari dagokionez. Konpentsazio modura, jardueraren eta okupatutako populazioaren hazkunde bat aurreikusten da, batez ere emakumezkoen kasuan eta 55 urtetik gorako pertsonengan.

5.- HEZKUNTZA, KULTURA, KIROLA ETA EUSKARA

Arrasatek **hezkuntza zentru** eskaintza zabala eta osoa dauka. Azken 10 urteetan plaza publikoen eskaintza haziz joan da, sektore pribatuak bere nagusigoa duen arren.

Arrasateren beste bi ezaugarri berezi, alde batetik 0 eta 4 urte bitarteko haurrak haur hezkuntzan matrikulatuak Gipuzkoako batzbestekoaren gainetik daudela, eta bestetik, lanbide heziketan matrikulak batxilerreko matrikulen gainetik aurkitzen direla.

Gainera, hezkuntza ereduari dagokionez, Arrasaten euskara hutsean emandako hezkuntza da nagusi Arrasaten.

2020rako haur hezkuntzan eta bigarren hezkuntza ondorengoaren matrikula kopurua jeistea espero da eta derrigorrezko lehen hezkuntzan eta derrigorrezko bigarren hezkuntzan matrikulazioak gora egingo dute.

Eskaintza kulturala ere Arrasaten askotarikoa eta interesgarria da. Kulturate Zentruan garatzen diren jarduerekin du zerikusirik handiena, baita Amaia-Zinema-Antzokian izaten diren jarduerekin ere. Epe rtainera, gizarteak gizarte, kultura eta hezkuntza jarduera gehiago eskatuko ditu, populazio orokorrari eta zehazki, adinekoei zuzenduta egongo direnak. Baita ere, positiboa izango da, aisialdi eta laguntza jarduerak bultzatzeko elkarte eta boluntzaritza bultzatzea.

Euskarari dagokionez, erakundeek udalerrriako euskalduntze maila handitzeko egiten ari diren ahaleginek bere emaitzak ematen ari da. 1991 eta 2006. Urte bitartean populazio euskaldunak 6 puntu portzentual hazi egin da eta erdi-euskaldunak 3 puntu egin dute gora, beraz, biztaleen laurden bat bakarrik du erdalduntzat bere burua. Euskara ikasteko udalerrian dauden baliabideak pertsona helduei zuzenduta, 3 euskaltegi dira, urtero 500 izen-emate biltzen dituelarik.

Udalerriak **kirol instalazio** eskaintza zabala eta askotarikoa dauka baita ere, frontoi asko ditu, futbol zelaiak, gimnasioak eta polikiroldegiak. Udalak kirol eremuari eskaintzen dion aurrekontua 1.722.590 €koa da, horrek biztanle bakoitzeko 77,4 euroko ratio bat suposatzen du. Populazioaren %25a kirol-zerbitzuetan izen-emanak dago. Hala ere, zifra hauek direla eta, Arrasatek biztanleko gainontzeko udalerriek baino aurrekontu altuagoa izan arren, Gipuzkoako gainontzeko udalerriek baino izen emandako populazio txikiagoa dauka .

Kirol-jarduera eskola eremuan oso esanguratsua da, Gipuzkoak duen parte hartze batzbestekoaren gainera dagoelarik. Federatutako kirolaren kasuan antzekoa gertatzen da 1.812 lizentzia guztira 17 modalitate desberdinetan 07/08 denboraldian.

6.- GIZARTE-AZTERKETA ETA BIZI-KALITATEA

2006. Urtetik habiatuz, Arrasateko errenta pertsonal guztiaren batazbestekoa 17.383,00€ zela kontutan hartuz, Gipuzkoak zuena baino zertxobait txikiagoa zen, pobrezia maila prestakuntza ekonomiko nagusiak kontutan hartuz aztertu da.

Arrasaten oinarrizko errenta eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzaren jazoera, krisi ekonomikoak zertxobait bultzatuta, erreferentziazko beste udalerriena baino baxuagoa da. Hala ere, Arrasaten kotizatu gabeko pentsioa jasotzen duen populazioa altuagoa da beste udalerrietan baino.

Menpekotasun mailari dagokionez, Arrasateko populazioak zahartze maila altua izateak, Gipuzkoako gainontzeko udalerriek baino ezindutako pertsona gehiago izatea dakar. Etorkizunean, populazioaren zahartzeak osasun egoera txarragoa ekarriko du. Mugikortasun arazoak, autozainketa eta etxean bizitzeko arazoak dituzten 64 urtetik gorako pertsonak %25ean haziko direla uste da. Aldi berean, talde honetako zati batek inolako menpekotasunik ezu duela izango pentsatzen da.

Udalerriak dauzkan gizarte zerbitzu dotazioak eta ekipamenduak oso garrantzitsuak dira. Horietatik gehienak adineko edo ezindutako pertsonen zuzenduta daude. Bestalde erresidentzia plazen estaldura maila, adineko pertsonen okupatutakoak gehien bat, eta telealarma zerbitzua Gipuzkoak bere osotasunean duenaren oso antzekoa da, Arrasate ezindutako pertsonentzat eguneko plaza estaldura handian eta etxerako laguntza zerbitzuaren estaldura handiagoa izateaz ezaugarritzen da. Gaur egungo eskaintza etorkizunerako nahikoa ez dela pentsa daiteke, batez ere kontutan hartzen bada populazioaren zahartzea eta gizarte zerbitzu eta ekipamenduei dagokionez talde honen eskariari begira. Horrela, zerbitzuen eskaintza zabaltzea beharrezkoa izango da, egun dagoen estaldura maila hobetuz.

Osasun zerbitzu eta ekipamendu eskaintza ere nahiko zabala da udalerrian, espezialitateak zabaltzean, hala ere, etorkizunean osasun zerbitzuak gehiago erabiliko direnez osasun gastua igotzea beharrezkoa izango da.

7.- LURZORUA

Arrasateko azalera 30,8 km²koa da. Bere populazioa kontutan hartzen bada esan daiteke oso mugatuta dagoela. **Lurzuaren erabilerari** dagokionez, %5a bizitegi-lurzorua da, %8 jarduera ekonomikoetarako da, %13 sistema orokorretarako eta gainontzeko %74a urbanizatu gabeko lurzorua. Etorkizunean, udalerrriak populazioa handituko ez duen arren, etxebizitza kopuruaren hazkundeak bizitegi-lurzoruan etxebizitza berrien eraikuntza bideratuko du.

Antzeko gainontzeko udalerriekin alderatuz gero, Arrasatek jarduera ekonomikoetarako bizitegi-lurzoru urbanizagarria eta hiri-lurzoruan azalera libre proportzio handia izateaz ezaugarritzen da, horietatik asko lurzoru urbanizagarrian aurkitzen delarik.

Berdeguneetarako eta babes eremuetarako lurzoruari dagokionez, Arrasatek duen baso-azalera gainontzeko udalerrien antzekoa izan arren, babes bereziko lurzorua oso txikia da. Bestalde, Arrasate hirigunean lorategie eta berdegune eskaintza garrantzitsua izateaz ezaugarritzen da.

Arrasateren alderdi negatiboa berriz, Durangorekin batera, erreferentziatzko eskualdeetan **potentzialki kutsatutako lurzoru** ehuneko handiena duena dela, eta horretaz gainera, azken urteetan proportzio hau handitzen joan da modu apal batean.

8.- MUGIKORTASUNA

Arrasateren **irisgarritasun** maila eta ibilitako ibilbidearen denbora batzbestekoa ezaugarri beretsuak dituzten erreferentziako eskualdeetako udalerrri buruen antzekoa da; hala ere, errepide nagusira heltzeko denbora batzbestekoa besteena baino altuagoa da. Harrigarria da, Arrasateren kokapen geografikoak Gasteizera joatea errazagoa egiten duela Donostiara joatea baino.

Barneko mailan, udalerrriak Irisgarritasun Plan bat martxan jarri du, hirian barrena joan-etorriak errezteko asmoz. Esku hartze nagusietako bat auzo desberdinak elkarrekin lotzeko igogailuak ezartzean datza.

Automobil pribatuen-parkeak bolumen handia dauka Arrasaten. Hori dela era, udalerriko arazo nagusietako bat aparkatze ezintasuna da, batez ere, erdigunean. Nahiz eta hori horrela izan, eskaintzen diren ordaindu beharreko aparkaleku publikoen erabilera oso murrizta da. Azken urteetan auto pribatuen murrizketa bat eman dela ikusten da, krisi ekonomikoaren eta garraio publiko eskaintzaren hobekuntzaren ondorioz. Hala ere, ekonomiaren egonkortasunarekin, datozen urteetan biztanle bakoitzeko auto tasa igo egingo da, hauek tamaina txikiagokoak izango direlarik eta kontsumo maila baxuagoa izango dutelarik.

Autobusa da **garraio publiko** bakarra. Berriki hobekuntza handiak egin dira : autobus-linea berriak ireki dira; maiztasuna handitu egin da; taxi-bus zerbitzu berri bat ezarri da nekazari auzoetara iristeko eta jaietarako autibus zerbitzu bat badago. Udalerrira irisgarritasuna hobetzeko, auto pribatuaren erabilera eragozteko, mugikortasunaren eskariari aurre egiteko eta biztanleek bizi-kalitatea hobetzeko, datozen urteetan garraio publikoa hobetzen jarraitu beharra dago.

Bidegorriak erabiltzeko erronka ere garrantzitsua da. Mugikortasun jasangarriaren esparruan, bitzita osasuntsu bat bultzatuz, eta ingurugiro erakargarriago eta atseginagoa eginez, bidegorri sarea zabaltzea da joera nagusia.

Populazioaren **mugikortasunari** dagokionez, datu esanguratsu gisa aipatu beharra dago: Arrasateko populazio zatirik handiena udalerrian bertan lan egiten duela; gehienak 20 minutu baino gutxiago pasatzen du lanera iristen eta gehienak auto pribatua erabiltzen dute horretarako, eta azkenik, ikasleen zatirik handiena Arrasatetik kanpo ikasten duela, eta ondorioz, beste udalerrri batera mugitzen direla. Arestian esan den bezala, eguneroko joan-etorri hauek garraio publiko sare egokia eskatzen du.